

# **HIZNET-Hizkuntza Plangintza**

## **Graduondokoa**

### **Sakontze Egitasmoa**

#### **HIZKUNTZEN ELKARBIZITZA KUDEAKETATIK EUSKARAREN EGOERAZ JABETZERA**

**UNITATE DIDAKTIKOA: EUSKARAREN NORMALKUNTZA  
BULTZATUZ**

**IKASLEA: GARAZI DORRONSORO GARATE**

**TUTOREA: MARIO ZAPATA**

**2016/07/28**

## AURKIBIDEA

<b>0. LABURPENA</b>	<b>4</b>
<b>1. HITZ-GAKOAK</b>	<b>5</b>
<b>2. HELBURUAK</b>	<b>5</b>
<b>3. JUSTIFIKAZIOA</b>	<b>6</b>
<b>4. HIPOTESIA</b>	<b>8</b>
<b>5. MARKO TEORIKOA</b>	<b>10</b>
<b>5.1. Kultura pluraltasunaren inguruko teoriak</b>	<b>10</b>
5.1.1. Kulturantzitasuna	10
5.1.2. Kulturartekotasuna edo interkulturalitatea	12
<b>5.2. Kultura aniztasuna eredu politikoak</b>	<b>13</b>
5.2.1. Asimilazioa	14
5.2.2. Segregazionismoa	14
5.2.3. Neutralismoa	15
5.2.4. Pluralismo kulturala	15
Multikulturalismoa	
Interkulturalismoa	
<b>6. ONDORIOAK</b>	<b>19</b>
<b>7. PROPOSAMENA</b>	<b>23</b>
<b>7.1. Deskribapena</b>	<b>23</b>
<b>7.2. Proposamenaren testuingurua</b>	<b>23</b>
<b>7.3. Landuko diren Oinarrizko Gaitasunak</b>	<b>24</b>
<b>7.4. Helburu didaktikoak</b>	<b>27</b>
<b>7.5. Edukiak</b>	<b>28</b>
<b>7.6. Metodologia</b>	<b>28</b>
<b>7.7. Jardueren sekuentziak</b>	<b>29</b>
7.7.1. Planifikatzea	29
1. SAIOA	29
2. SAIOA	30
3. SAIOA	30

7.7.2. Gauzatzea	31
4. SAIOA	31
5. SAIOA	33
6. SAIOA	33
7. SAIOA	34
8. SAIOA	35
9. SAIOA	35
7.7.3. Erabiltzea	35
10. SAIOA	36
11. SAIOA	36
<b>7.8. Ebaluazioa</b>	<b>36</b>
<b>8. BIBLIOGRAFIA</b>	<b>41</b>
<b>9. ERANSKINAK</b>	<b>43</b>

## **0. LABURPENA**

Lan hau Hizkuntza Plangintza Graduondoko Sakontze Egitasmoa dela aipatu beharko dut lehenbizi. Gai ugariaren artean berau aukeratzea aproposa iruditu zait gaur egun kulturantzatasuna kudeatzeko politika ezberdinak daudelako. Hori dela eta gizartearen kulturantzatasunaren inguruan sortu daitezkeen jarrerak anitzak izan daitezke. Jarrera horiek eragin positiboak edota negatiboak sor ditzakete kulturen biziraupenean eta, ondorioz, baita hizkuntzen biziraupenean ere.

Politika horien helburua ezberdina izanik nik baten aldeko apustua egingo dut eta hezkuntzaren bitartez helaraziko dut eredu horren sustapena. Era horretan nire lan arloan kulturantzatasunaren kudeaketa mota baten aldeko aletxoak jarriko ditut euskararen biziraupen eta normalizaziora bidean.

Lanak bi zati izango ditu, lehenbizikoa marko teorikoa izango da, bertan kontzeptuen azalpena egin ondoren kulturantzatasuna kudeatzeko dauden teoria eta praktika ezberdinak azalduko ditut euren arteko ezberdintasunak azpimarratuz.

Lehenengo zatiarekin bukatzeko ondorioak aterako ditut eta behin ondorioak aterata hautatutako teoriaren alde eginda bigarren zatia garatuko dut, nire proposamen praktikoa: unitate didaktiko bat.

## 1. HITZ-GAKOAK

Hitz-gakoak: kulturantzatasuna, kulturartekotasuna, pluralismo kulturala, multikulturalismoa, euskara, hizkuntza gutxituak, hizkuntza normalizazioa.

## 2. HELBURUAK

Lan honen helburu orokorra gazteen jarrera aldatetan eragitea da. Beraz, bi azpihelburu izango ditu helburu orokorrak. Lehena euskaraz txikitatik ikasi edota ikasten duten ikasleak kulturantzatasunaren bidetik euskararen egoeraz jabetzea eta bere normalizazioan eragitea. Bestetik, kanpotik etorritako ikasleak euskararen erabileraren garrantziaz jabetzea eta bere normalizazioan eragitea.

Euskara, beste asko bezala, gutxitutako hizkuntza da. Gutxitutako kulturen ondorio berberak pairatzen dituzte gutxitutako hizkuntzek ere, horregatik, kulturantzatasun egoera honetan gutxitutako kulturek bizi dituzten egoerak islatu nahi ditut gazteak euskararen egoeraz jabe daitezen eta eurek ere normalizazio egoeran agente aktiboa izateko jarrera gara dezaten.

Helburu nagusiaz gain beste helburu batzuk ere aipatu nahiko nituzke.  
Hurrengoak helburu zehatzak lirateke:

- Hizkuntza guztiek balio berberak eta funtzio berberak dauzkatela jabetzea, hau da, funtsean berdina direla jabetzea.
- Kulturantzatasuna kudeatzeko dauden ereduaren aurrean kritikotasuna lortzea.
- Ikasleak euskararen egoera errealaz jabetzea.
- Gazteen eskuhartzea garrantzizkoa dela egoera aldatzeko ikusaraztea.

### 3. JUSTIFIKAZIOA

Hainbat eta hainbat dira gure herrietara datozen etorkinak, hainbat eta hainbat dira ikastera eta lan bila atzerrira joaten ari diren gure herritarrak ere. Nahiz eta euren herrialdetik alde egin euren etxe bilakatuko dute aurkitzen duten herria eta nondik datozen ahaztea ezinezkoa egiten den bezala euren ohiturak eta, bereziki, hizkuntzak beraiekin bidaiatzen dutela ulertu beharrean gaude. Era berean gure herrikideek ere, euskaldunek, gauza bera egiten baitute. Pertsonak, edozein lekutan jaiota ere, berekin daraman bizitzako motxilan ezinbestean norberarekin bidaiatuko dute bai bere hizkuntzak bai bere kulturak ere. Gurasoengandik jasotako hizkuntza eta kulturaren bidez garatuko baitugu kosmobisio jakin bat.

Bidaia horien ondorioz, asko dira elkar gurutzatzen diren hizkuntzak. Lehendik ere baziren elkar ezagutzen zuten hizkuntzak baina, egun, gero eta ohikoagoa da hizkuntza ezberdinak espazio berbera partekatzea. Nazio Batuen Erakundearen azkeneko txostenean adierazten den bezala azken 15 urteetan migrazioa %41 igo da eta mundu mailan 244 milioi pertsona bere herrialdetik kanpo bizi dira. Nahiz eta kopuru berean ez izan kontinente guztietan igo da. Beraz, kulturek eta hizkuntzek ere migratu dute munduan zehar. Gaur egungo errealitatean komunikatzeko hizkuntza bakarra erabiltzen duten pertsoez egituraturatutako herrialdeak aurkitzea zaila litzateke.

Horren ondorioz herrialdeek erabaki ezberdinak hartu behar izan dituzte kultura eta hizkuntza ezberdinen bizikidetzak kudeatzerako orduan. Erabaki horien arabera hizkuntza batzuk zapalketa jasan dute, besteetan eskubide gutxi batzuk izan dituzte, beste herrialde batzuetan desagertu diren kulturak egon dira. Kudeaketa eredu ezberdinak ezartzeak tokian tokiko ondorioak ekarri ditu.

Ondorioetako bat, munduko hizkuntza gehienek desagertze arriskua litzateke. Askok dira munduan dauden hizkuntzak eta elkarrekin bizi direnak, baina, hizkuntzalariak ez dira ados jartzen munduan dagoen hizkuntza kopurua zein den galdetutakoan. Mugak jartzea lan zaila da eta hizkuntzen, dialektoen eta aldaeren artean jartzea ere hala da. Romaineren (1996) ustez erantzun hori hiztunek erabaki beharko lukete eta ez hizkuntzalariak. Hala ere, hizkuntzalariak munduan 6000-7000 hizkuntza

daudela diote. Hizkuntza guzti horien itxaropena, ordea, ez da oparoa, %90-95 inguru galtzeko arriskuan dago, faktore ezberdinengatik, beraz, gaur egun dagoen aniztasuna galtzeko arriskuan dagoela esan nahi du. Crystal-ek (2001) aipatzen du Krauss-ek bere lanean ateratako ondorioetako bat: XXI. mendean hizkuntzen %90aren heriotza edo beherakada ikusiko dugu.

Euskara arriskuan dauden milaka hizkuntza horien artean dago. Gaur egunera arte egokituz joan den hizkuntza da eta bi estatutan dauden zazpi probintzietan erabiltzen den hizkuntza da. Alabaina, euskararen inguruan ez dago lege bakar bat, honen harira 4 lege ezberdin ezarri dira: Espainiako konstituzioak jasotzen duena (euskarak bere esparru geopolitikoan izaera ofiziala izango duela jasotzen du 3. artikulua), 1982an EAEn adostutako Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko Legea, 1986an Nafarroan onartutako Euskararen Foru Legea eta Frantziako konstituzioak jasotzen duena (Errepublikako hizkuntza frantsesa dela dio 2. artikulua, baina erregioetako hizkuntzak ondareztat hartzen dituela gaineratzen du era sinbolikoan 75. artikulua). Beraz, tokian tokiko egoera ezberdinean dago.

Laburbilduz, gaur egun euskararen lurraldean hiru administrazio nagusi daude (EAE, Nafarroa eta Frantziakoa) eta lege-esparru ezberdinak ditu hizkuntzak. Gainera Nafarroako egoera berezia da, izan ere lurralde berean eremuaren arabera, hizkuntzaren estatusa aldatu egiten baita. Hariari jarraituz administrazio bakoitzak hizkuntza-politika ezberdinak ditu eta euskararen sustapenari eta erabilerari trataera desberdina ematen zaio.

Gauzak horrela euskararen normalizaziorako bidean lan handia egiten ari da, baina errealitatea zein den ikusita gizartearen inplikazio handiagoa behar da. Kezka hori buruan bueltaka dabilkidanez eta, gai honetan, gazteak agente garrantzitsua direnez, ikasleekin lanketa egiteko proposa iruditu zait. Beste arlo sozial guztietan bezala, hizkuntzarenean ere, aniztasunaren aldeko jarrera bultzatzea ezinbestekoa iruditzen zait eta hori era egokian landu daiteke hezkuntzaren bidetik ere. Jarrera hori bultzatuta euskararen aldeko jarrera ere sustatzea proposatuko dut sortuko dudun unitate didaktikoa.

#### 4. HIPOTESIA

Esparru erdaldun batean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lanean lehenbizikoz aritu ostean euskararekiko duten jarrerak kezka sortu dit. Gelan nekez erabiltzen dute gehienek euskara euren artean komunikatzeko. Are gehiago, irakasleekin hitz egiteko ere ozta-ozta darabilte.

Hori ikusita aniztasunaren inguruko lanketa txikia egin ondoren hipotesi ezberdinak atera nitzake. Aurrenekoa kulturaztasunaren ingurukoa da: ikasleen artean kulturaztasunaren iritzi eta jarrera ezberdinak daude. Askok migrazioarekin zuzenean lotzen dute kulturaztasuna eta, argudio ezberdinak luzatuz, jarrera negatiboa adierazten dute: “ezin dituzte eskubide berberak izan”, “horrela hemengo hizkuntzak desagertuko dira”, “hona baldin badatoz gure ohiturak barneratu beharko dituzte beraienak aparte utzita”, “ez lukete euren hizkuntzan hitz egin behar ez baitaude euren herrian”.

Beste batzuek, ordea, kulturaztasunaren aldeko apustua egiten dute baina ez dakite oso ondo hori nola adierazi: “denek dugu nahi dugun hizkuntzan hitz egiteko eskubidea”, “kultura ezberdinak ezagutu ditzakegu horrela”, “gu beraien egoeran jarri behar gara”.

Beste hipotesi bat euskararen inguruko ezezagutzaz eta kontzientzia faltaz izan liteke. Euskararen egoera positiboa dela deritzote askok, gehienek euskaraz ikasten baitugu gaur egun EAEn Derrigorrezko Hezkuntzan. Hori dela eta, urteak aurrera doazen heinean jende gehiagok euskara dakiela argudiatuz ez daukate euskararen egoerarekiko kezkarik. Horrek zerikusia izan lezake kontzeptu soziolinguistikoen ezezagutza faltarekin. Hau da, soziolinguistikak ematen duen ikuspegia ez ezagutzeak euskararen egoera erreala ez ezagutzea ekar lezake eta, ondorioz, horrekiko interes falta izatera eraman litzake ikasle batzuk. Kontzeptuok lantzerako orduan askok ez dituzte eta gure errealitatearekin lotzen.

Hurrengo hipotesia hizkuntzen desagerpenarekin lotuta dago. Horren harira, hizkuntzak desager daitezkenaren pertzepzio falta izan lezakete eta eurak hori ekiditeko agente garrantzitsu direnaren kontzientzia falta ere bai.



Horretaz gain, herrira duela urte gutxi etorritako ikasleak ere izan ditut eta ikasle horiengan euskararen eta euskal kulturarekiko interes falta izan liteke beste hipotesi bat. Euskara ikasi nahi ez zutela esaten zidaten, nahiko dutelako gaztelania ikastearekin eta euskarak ez duela baliorik argudiatuz. Komunikatzeko nahiko zutela gehien erabiltzen zen hizkuntza ikastea.

Proiektu txiki batekin bukatu zuten lanketa eta hizkuntza bat edo herrialde bat aukeratu behar zuten horretarako. Munduko herrialde ezberdinetan dauden gutxitutako hizkuntza batzuk (euskara, frisia eta karitanera esaterako) ikasi eta ezagututa ere denek munduan hitzun gehien dituzten hizkuntza nagusiak edota hizkuntza nagusiak erabiltzen diren herrialdeak aukeratu zituzten.

Gauzak horrela, hizkuntza politika ezberdinak daudela ikus dezaten nahi dut. Jarrera ezberdinak daudela erakutsi eta eurak alderantzizko egoeran nola sentituko lirateken pentsa dezatela eragin. Ez hori bakarrik, kudeaketa mota horiek euskararen egoera asetzeko balio duten edo ez hausnarketa egitera bideratutako lanketa proposatuko dut. Orokorretik euskararen egoera erreala ikusaraztera igaro eta egoera horren inguruko gogoeta egin dezaten proposatuko dut.

Benetako ondorioak zeintzuk diren ikusiko dute eta euskararekiko jarrera positiboa garatzera bideratuta egongo da, kudeaketa politikoek gizartearen jarreran eragin dezaketela ikusita.

Bukatzeko, Euskal Herrira duela gutxi etorritako ikasleen euskararekiko jarrera aldaketa ekar lezake elkarri zapaldu gabeko hizkuntzen elkarbizitzaren aldeko apustua mahaigaineratzerakoan.

Nolanahi ere, gaztetatik hizkuntzaniztasunaren aldeko jarrera izan dezaten lortzea aurrerapauso handia litzateke. Gazteak euskararen normalizazio bidean agente aktibo izatea garrantzitsua da eta eurak jakitun izan behar dira.

Era horretan, kulturantzatasunaren kudeaketa eredu guztiek hizkuntza guztien biziraupena bermatzen ez dutela konturatu litezke baldin eta egoera ezberdinez hausnartuko balute. Eta eredu horiek egoera bakoitzean egin dezaketen ekarpena ezberdina izan daitekeela uler lezakete lanketa egokia eginez gero.

## 5. MARKO TEORIKOA

Azalduko dudan oinarri teorikoa lantzeko euskarri ezberdinetatik hartutako informazioa erabiliz gaiarekin lotura egingo dut. Lehenbizi idazle ezberdinek aipatu kontzeptuen azalpena egingo dut euren arteko desberdintasunak nabarmenduz. Ondoren kulturantzatasuna kudeatzeko dauden teoriekin jarraituko dut kontzeptuek kudeaketa ereduarekin lotura zuzena dutela erakutsiz.

Horiek azaldu eta gero ondorioak aterako ditut eta nire proposamen praktikoa egiteko eredu horietako zein erabiliko dudan eta zergatik azalduko dut hasieran aipatutako helburuak lortzeko.

### 5.1. Kultura pluraltasunaren inguruko teoriak

#### 5.1.1 Kulturantzatasuna

Lehenbizi lanean zehar behin baino gehiagotan erabilitako *kulturantzatasuna* terminoaren esanahia zein den argitu nahiko nuke beste batzuekin nahasketarik gerta ez dadin. Horretarako hainbat autoreren lanak hartu ditut kontuan eta batzuk ekarri ditut definizio osoa egin nahian.

Hasteko Alain Tourainek egindako gogoeta ekarriko dut gogora artikulu batean<sup>1</sup> idatzi zuen kulturantzatasuna terminoa adosteko beharra zegoela ordura arte ikusmolde bat baino gehiago baitzegoen. Kezkatuta zegoen termino horren adiera ezberdinek xenofobia eta kultura bakarra bultza zezaketeela ulertzen zuelako.

---

<sup>1</sup> Touraine, A. (1995). *¿Qué es una sociedad multicultural? Falsos y verdaderos problemas*. Claves de Razón Práctica, 56, 14-25.

Soziologo honen aburuz kulturantzitasuna terminoaren lau aurkako adiera ezberdin zabaldu izan dira iritzi publiko gisa. Tokian tokiko adiera hartuz era batean edo bestean kudeatu izan da kulturantzitasuna.

Lehenengo ikusmoldeak espazio bateko gutxiengo etnokulturalak eta euren eskubideen aldeko ideiarekin lotzen ditu, honek kulturantzitasuna bultzatzea lezakeela pentsatzera eramane gaitzake baina soziologoaren ustez kultura ezberdinen arteko areriotasuna areagotzen du kultura ezberdinak elkarrekin bizi behar dutelako; ez du kultura antzitasunaren aldeko jarreratzat hartzen.

Bigarrena, ezberdintasunaren aldeko errespetuaren eskubidearen bidetik doan ikuspuntua da. Baina ideia honek kulturen arteko ezberdintasuna mantentzen du baina ez du kulturantzitasunean sinesten eta postura hau indibidualtasunean oinarrituta dago. Ezberdina dena errespetatu behar da, horrela bakoitzak berea errespetatzen dela ziurtatzen du baina bakoitzak bere eskubideen alde borrokatuko du.

Beste ideietako bat, kultura ezberdinak toki berean bizi direla onartzen duen ideia da. Kultura antzidun gizartea hori dela uste duen ikusmoldea dago, kulturen artean elkarrekintzarik ez dagoen tokia nahiz eta elkarrekin bizi. Bakoitza berearen biziraupenaz arduratzen da. Espazio berean kultura bat baino gehiago bizi daitezkeela onartzen duen ikuspuntua da baina bata ez du bestearekin harremanik.

Laugarren adiera mendebaldeko kultura gaitzesten duena litzateke. Ez du mendebaldeko kulturarekin zerikusirik izan nahi, ez du kultura horren ezaugarririk hartu nahi faktore ezberdinengatik.

Touraineren ustez lau adiera hauek izan dira urteetan kulturantzitasunaren konplexutasuna ikustea zaildu duten adierak eta *kulturantzitasun faltsua* deitzen die.

Beraz, Alain Touraineren kezka kulturantzitasuna kudeatzeko moldeetan jarrita zegoen, hau da, kultura ezberdinak espazio bera partekatzen dutenean politikoki zer nolako jarrerak eta erabakiak hartzen diren kontuan hartuta ikuspegi bat edo beste hartuko du terminoak.

Hori guztia kontuan hartuta, Tourainek aipatzen zituen 4 jarrera horiek garatzen joan izan dira eta gehiago dira urteak igaro ondoren garatu direnak.

Kontzeptu berbera *multikulturalitatea* terminoarekin ere ezaguna izan da eta, lehenago aipatu bezala, hitz honen deskribapen gisa ere adiera ezberdinak aurki daitezke, baina orokorrean egoera edota espazio berean kultura ezberdinak elkarbizitzan daudela adierazten duen fenomenoari deritzo. Termino honen inguruan León Olivék dio “en ocasiones el término *multicultural* se utiliza para describir sociedades en donde conviven grupos que provienen de diversas culturas” (Olivé, 2004, 21). Hau da, termino honek deskribapen-funtzioa dauka.

Miguel Argibay irakasleak luze idatzi du multikulturalitate terminoaren harira. Kontzeptu honetan oinarritutako hezkuntza ere azaldu izan du. Hori horrela izanda kontzeptuaren definizioa ere zein den idatzi du behin baino gehiagotan. 2003an argitaratutako lan batean kulturantzatasuna espazio berean bizi diren kultura ezberdinen kudeaketa eredutzat definitzen du. Antropologia kulturaleko kontzeptua edota kontzeptu soziologiko gisa deskribatzen duena espazio geografiko eta sozial berean kultura ezberdinen existentziaren egiaztapena omen da.

Idazlearen hitzetan elkarrekin bizi diren kulturak izan arren, bata bestearengan eragin txikia dute eta nahiko iragazkorak dira. Ghettoetan mantentzen dira eta bakoitzak bere bidea darama. Harrerako gizartea hegemonikoa izan ohi da eta besteak gutxiagotasun maila batean kokatzen duen jerarkia legal eta sozialak ezartzen ohi ditu. Horrek elkarbizitza soziala zailtzen du, kultura batzuk gutxietsiak izaten baitira aurreiritzi eta estereotipoak sortzen dituztelako talde ahulenen inguruan. Bukatzeko hauek dira Argibayren (2003) hitzak: “ En los casos en que exista equidad y respeto mutuo se puede pasar de la multiculturalidad al multiculturalismo”.

### 5.1.2. Kulturartekotasuna edo interkulturalitatea

Carlos Giménezek eta Graciela Malgesinik (2000) beste kontzeptu bat deskribatzen dute: *kulturartekotasuna*. Kulturantzatasunak izan ditzakeen gabeziak

gainditu nahi ditu, eta kultura ezberdinen arteko elkarrekintza islatu nahi du.

Kulturartekotasunak bi kultura edo gehiagoren arteko elkarrekintza bezala definitzen da. Kasu honetan elkarbizitzan dauden kulturen arteko izan daiteke edota momentu konkretu batean kulturen arteko elkarrekintza deskribatzeko ere erabiltzen den terminoa da.

Honen oinarrian, kulturantzatasuna dago, hau da, kulturantzatasuna onartzen da eta ideia horretatik aurrera sortzen da.

Néstor García antropologoak, bere aldetik, kulturartekotasunaren definizioa eman zuen *Culturas híbridas* (1989) lanean. Bi kultura edo gehiagoren arteko elkarrekintza bidezko hartu-eman edota elkarrekintza gisa definitzen du eta are gehiago esaten du: “La interculturalidad es un concepto relativamente moderno que lo estudian la sociología, la antropología, la comunicación y el marketing”. Bere hitzak interpretatuz kulturartekotasunean kultura guztiek eskubide berberak dituzte.

Gatazkak egon arren hitz eginez konpontzen dira. Gaur egun teknologia berrien bidez munduko edozein tokitan dauden pertsonekin komunika gaitzke, eurekin hitz eginez eta kulturen ikuspuntuak elkarbantzuz. Garcíaaren ustez kulturartekotasuna migrazioan ere jazotzen da pertsonak berea ez den beste herrialde batera doazenean, elkarrekintza handia dagoelako.

Laburbilduz, kulturartekotasuna kulturen arteko elkarrekintza da, bizikide direlako eta elkarren artean nahasten direlako mestizajerik egin gabe.

## **5.2. Kulturantzatasuna kudeatzeko eredu politikoak**

Kontzeptu hauek espazio berean dauden kulturen arteko kudeaketa eredu ezberdinekin lotuta daude. Hori dela eta kudeaketa teoria ezberdinak aipatuko ditut eta bakoitza zertan datzan azalduko dut. Teoria nagusiak 4 dira, nahiz eta bakoitzaren menpe azpитеoriak egon daitezkeen.

### 5.2.1. Asimilazionismoa

Eredu honek kultura hegemonikoaren inposaketa dakar. Gutxiengoak ezabatu nahi ditu desberdintasunak paretik kenduz. Arrazoi ezberdinak direla medio egiten du: kultura bakarraren nagusitasunaren delako ustea, beste guztien arteko kultura zehatz baten biziraupenaren zilegitasuna, bizikidetzaren espazio berean kultura bat baino gehiago bateragarri egiteko desconfiantza.

Gutxiengoak kultura hegemonikoaren antza izan dezaten bultzatzen du berezko ezaugarriak alboratuz eta, era horretan, gutxitutako kulturetako kideak estruktura sozio-laboralean eta politikoan...txertatu ahal izango dira. Aldaketa azkar gerta dadin tresna garrantzitsua hezkuntza izan da, herrialdeko hizkuntza ofiziala arin ikasteko metodo gisa erabiliz.

Jatorrizko kultur identitatea ez da kontuan hartzen, are gehiago, eskolako prozesu integratzailean oztopotzat hartzen da eredu honetan. Kultura, etnia eta arraza aniztasuna gizartearen kohesio eta segurtasunarentzako mehatxu gisa ulertzen da. 70. hamarkada arte ez da aniztasunaren alde positiboa nabarmentzen duen teoriarik sortuko eta ordura arte mendebaldeko herrialde guztiak asimilazionistak izango dira eredu hau bultzatuz.

Prozesu honetan jatorrizko kulturaren galera izan daiteke ondorio nagusia.

### 5.2.2. Segregazionismoa

Eredu honen aplikazioak aurrekoan aipatutako bi ideiak kontuan hartuz (kultura bakarraren nagusitasunaren delako ustea, beste guztien arteko kultura zehatz baten biziraupenaren zilegitasuna) hurrengoak bultzatzen du:

- Ghettoen sorrera eta oinarrizko eskubide politiko eta zibilak ukatzen dizikie beste kulturetako kideei.
- Kulturen arteko ezberdintasunak areagotzen ditu homogeneotasunaren diskurtsoa zabalduz.

Kasu honetan talde etniko-kultural bakoitzak bere instituzio propioak izan ditzake, lanarekin, osasunarekin, kulturarekin eta hezkuntzarekin lotutakoak, esaterako. Beste taldeekin ez daukate harremanik. Segregazioa talde menderatzaileak inposatutako ideia izan daiteke, hegoafrikako apartheidak kasu, edota talde menderatuak erabakitakoa izan daiteke euren ohiturak, erlijioa eta hizkuntza babesteko asmoz, judutegiak kasu.

Hezkuntzan ere izan du islada segregazioak, gutxiengoak aparteko eskoletan izatea ekarri du, gutxiengoei kultur nagusia ikasteko aukera ukatu zaie eta baita hezkuntza jasotzeko eskubidea ukatzea ere eragin du. Eredu honen adibidea izan daiteke Estatu Batuetan aurrera eramandako borroka segregazioa deuseztatu nahian eskubide zibilen aldeko kanpainarekin, beltzen eskolaratze eskubidea aldarrikatu zutenean hain zuzen.

Segregazionismoaren beste adibide bat Espainian ijitoei eskoletako ateak itxi zitzaizkienekoa da, ijitoak ijitoentzat soilik ziren eskoletan egon behar zuten erabaki politiko baten esanetan.

Prozesu honen ondorio nagusia eskubide berdintasun eza izango litzateke.

### 5.2.3. Neutralismoa

Espazio berean egon daitezkeen kulturen adierazpen ezberdinen aurrean tokiko gobernuak hautatutako abstentzioari deritzo. Liberalismo klasikoak justifikatzen du gobernu neutroak soilik ziurta dezakeela herritar guztien berdintasuna espazio publikoetan, eta berdintasun hitzaren barnean sartzen dituzte kultura gutxituen eskubideak.

Kasu honetan eredia berdintasun juridikoa da, hau da, “estatu bat-lege bat” eredia darabilte eta honek esan nahi duena da kulturen arteko ezberdintasunak arlo pribatura baztertzen direla, folkloreaken planora, alegia.

### 5.2.4. Pluralismo kulturala

Gaiarekin lotura duen beste kontzeptu bat *pluralismo kulturala* da. Horretarako Carlos Jimenezek eta Graciela Malgesiniren (2000) lanean oinarritu naiz. Lan honetan pluralismo kulturalaren inguruan kokapena eta azalpena egiten dute. Hizkuntza, erlijio edota kultura ezberdina duten etnien arteko bizikidetzak aukera ahalbidetzen duen ideologia dela deritzo.

Eredu honetan aniztasuna sortu egiten da, ez da desagertzen hizkuntza hegemonikoek besteak zapaltzen dituztelako. Aniztasuna kontzeptu positibotzat jotzen da eta kulturartekotasun praktikak sustatzen dira.

Pluralismo kulturalaren funtsezko oinarriak hirutan banatutzen dituzte:

1. Etnia, kultura, erlijio, arraza edota hizkuntza ezberdintasunak onartzea eta horien balorazio positiboa egitea. Bizitzaren antolaketa oinarri komunetan egiten da joera ezberdinak errespetatuz eta horrek ekar ditzakeen zailtasunak, adibidez.
2. Ezberdintasunerako eskubideen aldarrikapen eta defentsa. Pentsamendutan, baloreetan...ezberdina izateko eskubidea.
3. Eginkizun eta eskubide berdinen errekonozimendu orokorra.

Bi modalitate dauzkan kontzeptua da eta eredu politiko gisa sortu dira baina hezkuntzan ere islatzen hasi diren ereduak izan dira. Horiek multikulturalismoa eta interkulturalismoa dira.

- Multikulturalismoa

Lehenago aipatu *multikulturalitate*a terminoarekin harremana dauka. Hura hau bezala kulturen pluraltasunean oinarritzen da baina honek ez dauka deskribapen-funtzio soila, baizik eta arauemailea. Eredua ez ezik kultura desberdinen elkarbizitzaren defentsa egiten duen teoria ere bada. Honela jasotzen du Olivék: “A diferencia de la multiculturalidad, que tiene un sentido descriptivo, el concepto de *multiculturalismo*



tiene un sentido normativo” (Olivé, 2004:22).

Honek ezberdintasunaren politikak proposatzen ditu. Kultura nagusiaren aldekoek burutu duten asimilazionismoaren aurkako erantzuna da. Politika hauek kultura nagusiarekin harremanik ez duten beste kultura-taldeen biziraupena dute helburu eta konstituziozko onarpena nahi dute, dela bertako gutxitutako kulturentzat dela migrazioa dela eta etorritako kulturentzat.

Eredua pluralismo juridikoa da, hau da, sistema politiko baten barruan lege sistema ezberdinen ezarpena. Honek gutxitutako kultura taldeen ezberdintasunak konstituzionalki aitortzen ditu.

Multikulturalismoak adiera ezberdinak izan ditzake termino hauek era hertsian definitzea ezinezkoa baita. Juan Carlos Velasco filosofoaren hitzetan, esaterako, batzuentzat ekologismoko atal berezia ere izan daitekeela dio. Kultura ekologia sisteman dagoen aniztasunaren barruan kokatzen duten zaindu beharreko altxorra dela diote hizkuntzalari batzuk. Biodibertsitatearen defentsa bezain garrantzitsua omen da kulturantzatasuna ere, beste aniztasun guztiak bezala.

Beste batzuen hitzetan, aldiz, multikulturalismoa gizartea osatzen duten taldeen arteko desberdintasuna esan nahi du eta ezberdintasun hori mehatxu gisa ulertuta bakoitzak berea gorestekoa aukera eta bestea mesprezatzekoa dakarrela dio. Horrela bizikidetzan banaketa sustatuz edota ondokoa zapalduz.

Alabaina, termino hau bestelako jarrera batekin onartzen dutenak ere badira gizartean. Hezkuntzan oinarritzen den demokrazia berriztu utopikoa bultzatzen dute hauek, kultura guztien arteko elkarbizitza bultzatzen dute memoria kultural guztiak bizirik mantentzeko eta herritartasunaren batasunera bidean lan egiten dute.

Olivéren hitzetan “expresa un concepto que se refiere a modelos de sociedad que pueden servir como guía para establecer o modificar relaciones sociales, para diseñar y justificar políticas públicas, para tomar decisiones y para realizar acciones.”(Olivé, 2004:22).

Bi termino hauek, kulturantzatasuna eta multikulturalismoa, sinonimotzat hartu dira askotan gizartean. Alabaina ezberdintasunaz hausnartzeko Albert Moncusí Ferréri (2006), Valentziako Unibertsitateako Soziologia eta Antropologia sozialeko Departamentuko idazkaria, egindako elkarrizketa batean aipatu zuen ideiaz baliatuko naiz. Berak esan zuen ez zela gauza bera kulturantzatasuna eta multikulturalismoa. Lehenak gizartean dagoen kulturen ugartitasuna eta aniztasuna besterik ez du adierazten eta, bigarrenak, aldiz, orientazio politikoa dauka. Jarrera politikoa horrek aniztasuna publikoki eta esplizituki aitortzen duen eredu litzateke. Gainera, kultura horiei erosotasuna eskainiko diena.

Terminoak ardua arauemailea duen neurrian kulturen arteko elkarbizitza antolatzeaz eta arauzkotzeaz arduratuko da. Zentzu horretan legegintza eremuan kulturantzatasuneko talde minoritarioen onarpenaren defentsa egiten du. Gainera, beste alderdi batzuetan ere kulturantzatasunaren onarpena bultzatzen du. Hau kontuan hartuta, Kimlicka-k horrela deskribatzen dut terminoa: “las sociedades modernas tienen que hacer frente cada vez más a grupos minoritarios que exigen el reconocimiento de su identidad y la acomodación de sus diferencias culturales” (Kimlicka, 1996:25).

Horretaz gain eredu honek politika publikoen sorrera bultzatzen du.

- Interkulturalismoa

Interkulturalismoa kulturartekotasunaren ideia eredu politikoa gisa ezartzeko sortutako terminoa da.

Idazle batzuek ez dute ia bereizketarik egiten interkulturalismo eta multikulturalismo terminoen oinarrien artean. Multikulturalismoa lehenago sortutako kontzeptua da, asimilazionismoa deuseztatzeko sortu zen eredu izan zen.

Alabaina ez zuen pentsatutako ondorioz izan. Hori dela eta paradigma berria sortu zen: interkulturalismoa. Hau multikulturalismoak dituen bi printzipioak (berdintasuna eta diferentzia) osatzeko asmoz hirugarrenago bat dauka bere baitan:

elkarrekintza positiboa. Honek esan nahi du ezberdinak diren entitate edo subjektu kulturalen arteko elkarrekintzan enfasia jartzen duela.

Horretaz gain, paradigma interkulturalista alor ezberdinetan ezartzeko sortua izan da: politika publikoan, sozialean eta hezkuntzan.

Interkulturalismoa multikulturalismoa baino haratago doan eredu da. Multikulturalismoak kultura bakoitzean eta bakoitzaren historian interesa jartzen du, baita euren eskubideetan ere. Interkulturalismoak, horretaz gain, kulturen elkarrekiko ikaskuntzan eta kooperazioan interesa dauka.

Horren ondorioz kultura ezberdinetako kideen artean konfiantzazko harremanak, bata bestearen onarpena, elkarrekiko komunikazioa, eztabaida, ikaskuntza, hartu-emanak, gatazkaren arautze baketsua, kooperazioa eta elkarbizitza sortzen ditu.

## **6. ONDORIOAK**

Argi dagoena da kulturalizazioa egungo errealitatearen isla dela eta egoera honen aurrean begiak ezin direla itxi. Hala ere, nola jokatu erabaki behar da eta dauden aukerak anitzak dira. Aukeraketa horien ondorioz kultura ugari eta, ondorioz hizkuntza ugari, desagertzeko arriskuan egon litezke eta zoritxarrez badaude. Hala ere, bi bide ezberdin beharko lirateke. Bata espazio bateko bertako hizkuntzak dauden errealitatea litzateke, horiek desagertzeko arriskuan egongo lirateke baldin eta herritar guztien beharrak asetzen ez dituen kudeaketa eredu ezartzen bada. Horren harira ezinbestekoa da lehen pausoa elkarrekiko aitortza egitea.

Eta bigarrena, bestetik, kanpotik datozen kultura eta hizkuntzekin batera egin beharreko elkarrekintza mota.

Lehenengo ideia dela eta gizartean eragin beharra dago politikoki hartzen diren erabakiek hizkuntzak hiltzen utzi ez ditzaten. Hizkuntzen biziraupena bermatzeko era bakarra ekitatea izango da eta hori elkarrekiko aitortza egin eta bata bestearen errekonozimenduaren ostean etorriko den agertokia izan liteke, baldintza horiek egon

ezean ez da gutxitutako hizkuntzen biziraupena bermatuko. Hori lortzeko bide bat baino gehiago egon daiteke, nik aukera aproposena iruditzen zaidana aipatuko dut.

Eredu bat edo beste ezartzea erabakia hartzerako orduan eragiten duen faktoreetako bat hizkuntzak dituen hiztun kopurua izaten da eta kopuruak zein diren zehaztu beharko litzateke errealitatea zein den ikusteko.

Aipatu 6000-7000 horietatik 70 hizkuntza mintzatuenean munduko biztanleen 3/4ak hartzen dituzte, gainerako 6000 hizkuntza inguruk gizakien laurdena ozta-ozta hartzen dute Grimesen arabera (1996).

Baina faktore hau eta beste asko (hizkuntzen funtzio eza, zaharkituta daudela, herrialde gutxitan hitz egiten direla,...) albo batera utzi behar ditugu hizkuntza guztiak erabilgarriak direlako. Horretaz gain, gure kasuan, euskaraz bizitzeko hautua egiteko eskubidea izan beharko genuke. Bizitzeko esaten dudanean, bizitzako arlo guztietan erabiltzeko eskubidea adierazi nahi dut, komunikazio aukera guztiak, alegia.

Idea hauek aipatzerakoan Noam Chomsky datorrit gogora. Bere esanetan gizakiok jaiotzen garenetik daukagu gaitasun linguistikoa, eta gaitasun hori hizkuntza guztiek komunean dituzten printzipio batzuk osatzen dute. Jaiotzen garenetik ahalmen hori daukagula esaten duenean, ume batek egitura gramatikalak bere barnean dituela esan nahi du.

Baina, umeek egitura gramatikalak bere barnean izateak hizkuntza gaitasunaz haratago garamatza, horrek esan nahi baitu hizkuntza hori edozein dela ere garatzeko gaitasuna dugula. Baina, are gehiago esan zuen, gizakiak jaiotzetik duen gaitasun hori era berean garatzen zela ikusita munduaren punta batean edo bestean egonda, hizkuntza guztien artean komuna zen oinarriren bat egon bazegoela esan zuen: Gramatika Unibertsala. Horrek esan nahi du hizkuntza guztiak sortzeko darabilgun mekanismoa berbera dela eta inongo esperientziaren aurretik dugula gaitasuna jaiotzetik. Gramatika Unibertsal gisa definitzen du denok jaiotzetik daukagun gaitasun linguistiko gisa.

Chomskyk dio hizkuntza garunaren ezkerreko hemisferioan kokatuta dagoela eta pertsona batek bi ama-hizkuntza baldin baditu, hizkuntza biek komunean dituzten ezaugarriak eta hizkuntza bakoitzaren berezitasunen egitura konplexua izango dituela garunean. Baina ez dela gauza bera gertatzen  $H_1$  eta  $H_2$ -ren kasuan, prozesatzeko era ezberdina baita, ama-hizkuntzak norberarengan aztarna edo arrastoa uzten duelako.

Honekin guztiarekin adierazi nahi dut edozein tokitan jaiota ere kultura eta hizkuntza jakin batean heziko dutela pertsona oro. Batzuk euren herrietan hizkuntza hegemoniko batekin jaiotuta bizi eta hiltzen dira, baina beste asko ez. Ez dugu guk erabakitzen zein izango den gure ama-hizkuntza eta zein egoeratan dagoen baina hori aldatzeko ahalmena badugu.

Eskumen hori arlo sozialetik egiteko politikoki aukera egon behar da. Politikoki aukerak daudenean ere batzuetan zaila da aurrera egitea. Horretarako edozein eredu ez du balio, denek ez baitituzte kultura guztiak aitortzen, eta ondorioz, denek ez zaizkie eskubide berberak errekonozitzen.

Pertsona garen heinean denok eskubide berberak eduki beharko genituzke eta hori horrela izanda besteak errespetatzen ikasi beharko genuke eta aldi berean gurea errespetatu dadin borrokatu beharko genuke. Gurea ere beste guztion bezala errespetatu dadin, geuk ere pertsona bezala beste guztien eskubide berberak baititugu eta nahi dugun hizkuntzan eta kulturaren hezi eta bizitzeko eskubidea baitauekagu.

Gauzak horrela hementxe dago arazoa: ez dago hau guztia biltzen duen eredurik. Hori dela eta ez dut azaldutako eredu nagusitako horien artean bat bera ere hautatuko. Tokian tokiko egoera ezberdina izanik halako eredu zabalak egoera hoerietara egokitzeko beharra daukate. Horretarako, lehenbizi Euskal Herrian ere kultura eta hizkuntza ezberdinak daudela onartu beharrean gaude.

Horregatik komunitate bateko hizkuntza guztiak aitortzen dituen aukera hautatuko dut. Horretaz gain, nik aukeratutako ereduak komunitateko gutxitutako hizkuntzei bultzada emango die eta administrazio publikoko arlo guztietan hizkuntza hauek bermatzeaz gain, sozialki hauekiko jarrera positiboa bultzatuko du. Eredu honek

erakunde guztien esfortzua eta inplikazioa bermatuko ditu inbertsio soziala egiteko, mezu negatiboa ezabatzeaz gain indarra eta daukan tokia eskaini beharko dielako hizkuntza horiei. Hori izango da lehen pausoa hizkuntzon biziraupena bermatuko duen eredia sortzeko.

Hori guztia gurera ekarrita euskararen normalizazio bidean horrelako eredu baten beharra dago. Horrekin bakarrik, beharbada, ez ziratekeen epe motzean emaitza handiak ikusiko. Baina gizartean eragitea errazagoa litzateke, gizarteari euskarak beste hizkuntzen funtzio berberak dituela ulertaraztea errazagoa litzateke. Baita euskaraz bizitzeko aukera gehiago egongo liriteke eta ez genuke zertan beste hizkuntza baten beharrik izango elkarrekin komunikatu ahal izateko.

Horretarako gazteen inplikazioa beharrezkoa da, eurak baitira euskararen geroa eta horregatik dira euskararen normalizazio prozesuan agente garrantzitsua. Sozialki eurak euskaraz bizitzeko inertzia sortu beharko genuke, beraiek transmititu behar diete hurrengokoei euskara eta euskaraz bizitzearen esanahia.

Alabaina, ez gara gure hizkuntzaren aitopenearekin konformatu behar, horregatik bada bigarrenengo fase bat. Fase horretan beste kulturekin elkarbizitzan gaudela onartu eta egoera errespetatu beharrean gaude. Horregatik elkarrekintza balio positibotzat duen eredia oso garrantzitsua da, modu baketsuan gatazkak konpondu ahal izateko, elkarrekin gauzak adosteko eta denen artean hitz egiteko.

Gure kasuan ere beste hizkuntza batzuekin bizi gara, horrek ez du esan nahi hizkuntza horiek ezabatu nahi ditugunik, baizik eta eurekin batera elkarbizitza sustatu behar dugula. Askotan euskarak gaztelera deuseztatuko duela irudikatzen bada ere, elkarbizitza errespetagarria besterik ez da nahi izaten, euskara eta euskal kultura mundu honetan beste hainbat bezala garrantzitsuak direla ulertzea besterik ez da eskatzen.

Euskarak beste hizkuntza hegemonikoei dituzten aukera berberak, beraz, pluralismo kulturalak soilik bermatuko ditu.

## **7. PROPOSAMENA**

### **7.1. Deskribapena**

IRAKASGAIA: Euskal Hizkuntza eta Literatura

GAIA: Argudio Testua erabiliaz euskararen normalizazioaren aldeko jarrera sustatzea.

MAILA: DBHko 4. Maila

SAIO KOPURUA: 11

### **7.2. Proposamenaren testuingurua**

Lehenago ere aipatu dut zein den testuingurua. Nik proposatzen dudan unitate didaktiko hau gune erdaldunetan lantzeko prestatuta dago bereziki. Horrek ez du esan nahi gune euskalunetan erabilgarria eta aberasgarria izango ez denik, baizik eta herriko zein inguruko hizkuntza-egoera ezberdina izanda ikasleen euskararekiko jarrera ere ezberdina izango dela aurreikusten badugu, ikasleen jarrera positiboa den guneetarako helburuak aldatzea komenigarria litzateke.

Hori dela eta, aurretik aipatu helburuak lortzera bidean osatu dut unitate didaktiko hau. Gai honek, gainera, hezkuntzan inklusioa bultzatzen lagun diezaguke, besteak beste. Orokorrean ezberdina izateak berezi (hitza konnotazio positiboarekin ulertuko dute) egiten gaitu eta berezitasun horrek ere egiten gaitu aberats. Ideia hori hainbat alorretara zabalduta ikasleek ere integrazioa lantzeko beste modu eraginkor bat izan daiteke.

Gaur egungo egoera oso anitza da ikasleei dagokienez baina ezaugarri zehatzak dituzten ikasleentzat bideratutako hezkuntza izaten da oinarria, pertsonak ezberdinak garela konturatuko gara ez hizkuntza edo kulturagatik soilik, baita bakoitzaren pentsaera, ohitura, behar, jokatzeko era eta beste hainbat ezaugarriengatik ere.

Hezkuntza curriculumaz ezartzen duen 175/2007 Dekretuan adierazten den bezala, DBHko 2. mailatik aurrera jartzen dira ikasleak argudio testuarekin harremanetan. Hala ere, 4. mailan landu beharko lituzkete argudio-testuaren genero ezberdinak eta horiek sortzeko gaitasuna lortzen dute. Adin honekin ikasleak kritikoak izateko gaitasun

nabarmenagoa dute eta argudio koherenteak emateko gaitasuna ere bai. Hori dela eta, interesgarria deritzot adin honetan halako gaia jorratuko duen unitate didaktikoa lantzea.

Gainera, teknologia berriek ere lan honetan laguntza bikaina eskaini diezagukete. Gaur egun teknologia berriek baliagarritasun eta aukera ugari eskaintzen dituzte eta horri esker interneten informazioa topa dezakete eta baita beste kultura bateko jendearekin hitz egin, ezagutu,...

Maila honetan, gainera, erabiliko ditugun baliabideak ezagunak izan zaizkieke 15-16 urteko ikasleei. Kasu honetan interneten hartutako informazioaz gain euskal prentsarekin lotutako baliabideak erabiliko ditugu: euskal egunkariak, euskal aldizkariak, euskal ikas-liburu editorialen lanak,...

Hala ere, kulturantzatasunaren gaia eta euskararen normalizazioaren bidean norbanakoak duen garrantziaren hausnarketa lehenagotik jorratuko nuke, ahal dela Haur Hezkuntzatik hasi Lehen Hezkuntzara jarraitu eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara garatzera bideratuko nukeen gaia da, adin tarte bakoitzean helburu ezberdinak ezarriz.

### **7.3. Landuko diren Oinarrizko Gaitasunak**

#### Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna

Gaitasun hau da bereziki garatuko dena. Alde batetik, testuak ulertu eta interpretatu beharko dituzte. Testu ulermena ezinbestekoa izango da ideia nagusiak ateratzeko eta kritikotasunez jokatzeko.

Euren iritzia emateko lehenbizi eskuatutako informazioa bereganatu beharko dute eta alde edo kontra egiteko dauden adierazteko ere hizkuntzaren beharra daukate. Gainera ahoz zein idatziz egin beharko dute, beraz, ahozko eta idatzizko hizkuntza trebetasuna garatuko dute.

Nahiz eta proiektua idatzizko lana izan, unitatean zehar denok borobilean jarrita eztabaida bat sortuko dugu, eta denek ahozko argudio testua sortu beharko dute, berau egoki egin ahal izateko gaitasuna beharrezkoa izango dute. Baita eskainiko zaizkien



beste ariketa guztiak egiteko ere. Horretarako ariketak sekuentzia baten menpe egongo dira, eurek errazago gara dezaten hizkuntza komunikaziorako gaitasuna. Ariketen bitartez eta irakasleak gelan parte-hartzea bultzatuz entzumenean, mintzamenean, elkarrizketa, irakurmenean eta idazmenean trebatuko dira.

### Teknologia digitala eta IKTak erabiltzeko gaitasuna

Unitate honetan IKT-ak erabili beharko dituzte, bai informazioa bilatu ahal izateko eta baita bilatu duten informazioa egokia den edo ez erabakitzeko. Hau da, bilatutako informazio guztia ikusita behar dutena hautatu beharko dute irizpide ezberdinen arabera. Horrela, informazio hori jakintza bihurtu arte. Gainera, komunikatzeko ere IKT-ak erabiliko dituzte. Gai izan beharko dira testu, bideo, entzumen...bilatzeko eta egokia zein den aukeratzeko.

### Ikasten ikasteko gaitasuna

Kasu honetan, metodologiak lagunduko die ikasleei gaitasun hau garatzen. Poliki-poliki ikasleek euren gaitasunak zeintzuk diren ezagutzen joango dira. Horretarako irakasleek baliabide ezberdinak emango dizkiete eta eurak ikusiko dute zerk lagun diezaiokeen bere buruari ikasitakoak finkatzen, eskuratu behar dituen jakintzak eskuratu dituen edo ez jakingo du ikasleak eta ze jarduerak lagun dezaketen jakintza horiek finkatzen edota erreparatzen. Horretaz gain, irakasleak metodologia honekin ikasleak motibatuzko ardura izango du eta ikasleek sentituko dute euren burua gai dela ikasteko eta horrela ikasteko grina sustatuko dute ikasleengan, euren buruarekiko konfiantza sortuz.

Prozesu osoan zehar, ikasleak ulertuko du zer dakien eta zer ikasten ari den, nola ikasten ari den eta zein den modu eraginkorrean ikasteko egin behar duen aukera. Behin hori jakinda, zein indargune eta zein gabezia dituen ere jakin behar du.

Horretarako egingo diren ariketa guztiak baliatuko ditu eta baita irakasleek erakutsitako estrategiak ere. Indargune horiek aprobetxatuz gabeziak nola bete daitezkeen ikasten ikasiko dute, motibazioarekin, noski.

Ikasleei ere, euren gaitasunen jabe direnean, helburu propioak jartzen ere erakutsiko zaie edota, hobe esanda, eurek ikasiko dute. Horrela euren burua motibatuko dute helburu horiek lortzera bidean, eta poliki-poliki lortzen dituztenean gehiago motibatuko dira. Hori bai, bakoitzaren gaitasunak zeintzuk diren argi izanda.

Horretarako hausnarketak egingo dituzte, hausnarketak hizkuntzaren inguruan eta baita euren gaitasunen inguruan ariketa jakinak egin ondoren. Zer ulertu duten eta zer ez jakin dezaten edota zer kostatu zaien gehiago ikastea eta zergatik. Gainera, horrek aurrera begira ere balioko die, prozesu baten baitan motibazioarekin, noski, gaitasunak garatzen joango direlako eta eurak jabetuko dira egindako aurrerakuntzaz.

#### Norberaren ekimenerako eta autonomiarako gaitasuna

Garatuko duten konpetentzia honek imajinatzeko, garatzeko, bakarkako edota taldekako proiektu eta ekintza ebaluatzeko gai izatea suposatzen du. Era honetan, bai bakarka eta baita taldeka ere egindako ariketek (ozen zuzentzeko, irakasleari emateko,...) gaitasun hau garatzen lagunduko die. Ikasleek egindako lan horiek eurek erabakiko baitute nola egin, hau da, zein baliabide baliatu eta zein ez erabaki beharko dute ahalik eta laguntza txikienarekin. Horrela egindakoa bere sentituko dute eta erabakiak hartzeko gai izango dira bakoitzaren autonomia handituz.

Hitz batean esateko, autonomia izatera lagunduko dira ikasleak, hau da, autonomoagoak izatea da bilatuko dena eta horregatik garatuko dute gaitasun hau.

#### Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna:

Gaitasun hau ariketa guztietan garatuko dute. Unitate didaktiko honetan gizarte anitza bultzatuko da eta denok gizartearen parte garela ulertaraziko zaie. Ez hori bakarrik, gizarterako denok garrantzitsu eta beharrezko garela ikusiko dute eta denok pisu berarekin gainera. Horretaz gain, ikasleari erabakiak hartu behar dituela ulertaraziko zaio, bizitza errealean ere erabakiak hartu beharko dituelako eta bera izango baita erabaki horien guztien jabe.

Geletan gero eta aniztasun handiago dago bai jatorri aldetik, kultura aldetik bai maila sozioekonomikoaren aldetik, erlijio aldetik...Baina kolektibotasun horren barruan talde lanean arituko dira eta denak berdinak garela ulertuko dute. Pertsona bakoitzak bere iritzia eman dezakeela eta guztiek balio berbera dutela. Gehiago kostatzen zaionari lagunduko diotela eta ekintza horrek berak ere bakoitzaren burua lagunduko duela. Aniztasuna aberasgarria dela bere alderdi guztietan.

Horretaz gain, gizarteko partaide sentituko da bakoitza gelako parte-hartzea sustatzen denean, bat ez da bestea baino gehiago eta horretarako euren buruan konfiantza garatu behar dute lehenbizi inor mespretxatua senti ez dadin. Denek elkarri lagundu behar diotela ikusiko dute, denek beharko dutelako laguntza momenturen batean. Eta ondokoari laguntzeak bakoitzaren burua laguntzen duela ere konturatuko dira eta horren inguruko hausnarketak bultzatuko dira. Era horretan eurak bakarrik konturatuko dira zein garrantzitsua den aniztasuna ulertzea eta maitatzea gizartearen parte garen heinean.

Horrela gizarte bizikidetzarako trebetasunak garatzen joango dira, eta ikastetxetik kanpo ere erabilgarri suertatuko zaizkie garatutako trebetasun horiek: bakoitzak pentsatzen duena esatea, besteek esaten dutena entzutea, besteen lekuan jartzeko gai izatea, bakoitzaren burua ezagutzea eta maitatzea, balioestea. Modu honetan kolektibo guztiek eskubide berak dituztela ulertzera helduko dira eta kolektibo bakoitzaren barruan pertsona bakan anitz dagoela eta pertsona hauek ere eskubide berberak dituztela.

#### Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna

Euskal prentsa eta interneteko atarietan bisita egingo dute ikasleek eta bertan gure kulturaren parte diren hedabideekiko interesa bultzatuko nahian. Bertako idazleak eta gaiak ezagutzeko interesa bultzatu nahi da horrela. Poliki poliki testu ezberdinak ezagutzen joango dira hauen azterketan ondorioz.

### **7.4. Helburu didaktikoak**

1. Iritzi-testuak idatzi.

2. Prestatutako iritzi-testu edo gutunaren auto-zuzenketa eta taldeko zuzenketa burutu.
3. Argudio-testuak erabilera-esparruaren arabera sailkatu.
4. Argudio testu motak ezagutzea eta berariazkoa duten egituraz jabetu.
5. Argudio mota garrantzitsuenak bereizi eta beren ezaugarriei antzeman.
6. Iritzi-testuetan modalizazioak duen garrantziaz ohartu.
7. Ideiak eta ikuspegiak garatzea eta kontrastatzea helburu duen eztabaida batean egoki eta zentzu kritikoz parte hartu.
8. Nork bere ikuspegia arrazoituz azaldu eta arau sozio-komunikatiboak egoki aplikatzea.
9. IKTak eta testu-prozesadoreak informazioa aurkitzeko erabili.
10. Lanak egiterakoan norbere kabuz eta gustuz aritu.
11. Eginkizunak gauzatzekoan autonomia handitzen joan.
12. Eginkizunak gauzatzekoan ekoizpenen zuzentasuna eta alde estetikoa zaintzearen garrantziaz ohartarazi.

## 7.5. Edukiak

1. Argudio-testuak: motak, egitura eta ezaugarri nagusiak.
2. Argudio-testuak kazetaritzan.
3. Testuaren modalizazioa: pertsona deiktikoak, jarrera islatzen duten bitartekoak, balorazioa islatzen dutenak.
4. Iritzi-testu edo -gutunaren planifikazioa: gaia aukeratu, tesia finkatu, argudioak bildu, tesi baliagarriak hautatu, horiek argudiatu, konklusioa hausnartu.
6. Lanak garatzeko orduan, autonomia sustatu.
7. Testu idatziak berrikustearen garrantzia: egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna kontuan hartu.

## 7.6. Metodologia

Metodologiari dagokionez, ikaskuntza esanguratsuan oinarrituko da. Horretarako, ariketen arabera, molde ezberdinak erabiliko dira. Hala ere, ariketa guztiak sekuentziazio baten menpe egongo dira, hau da, momentuan garatu nahi denaren menpe.

Poliki-poliki ikasleak dakitena ikasitakoarekin lotzen joatea da helburua, horrela ikaskuntza esanguratsua bultzatuz. Horretarako irakasleak klase hasieran aurretik ikasitakoa jakintza bihurtu duten edo ez jakiteko aurretik landutakoaren inguruan galderak egingo dizkie. Galdera horiek, gainera, unitatearen zein puntutan kokatzen diren ulertzen lagunduko diete, eta baita, unitatearen azken lana ulertzen.

Bestalde, irakaslea eurek sekuentziazioa uler dezaten saiatuko da, honela, bakoitza bere ikaskuntza prozesuaz jabetu dadin. Unitatearen bukaeran egin behar dutenaren jakitun izango dira momentu oro. Horrela ikasleak gai izango dira eurek bakarrik lehendik zekitena, ikasitakoa eta ikasiko dutena lotzeko, autonomoagoak izaten ikasiz.

Ariketak egiteko hautatutako argudio-testuak era ordenatu batean daude programatuak. Errazenetik zailenera (azkeneko lanera) bidean pausoak emanek hartzeko pentsatua dago, hain zuzen ere. Hautatutako materiala egokia dela uste dut, ez dira argudio-testu sinpleenak izango lehenago argudio-testuaren oinarriak landu baitituzte. Hasierakoa errepassoa egiteko direnez sinpleagoak izango dira eta ondorengoak, berriz, konplexuagoak. Irakasleak emandako testu guztiak kulturazintasunarekin eta hizkuntzekin lotuta daude, horrela, ikasleak euskararen egoera zein den eta egoera aldatzeko zer egin daitekeen hausnartuko dute eurak ondorioaren parte izanik.

Ariketetan aipatutako materialaz gain, beste baliabide batzuk ere erabiliko ditut unitate didaktiko hau landu ahal izateko: ukipen-arbela digitala, proiektorea, ordenagailuak, orriak, koadernoak, grabagailua,...

## **7.7. Jardueren sekuentziazioa**

### **7.7.1. Planifikatzea**

1. SAIOA: Hizkuntzekin jolasean

1. Jarduera: Irakasleak galderak botako dizkie ikasleei:

- Zenbat hizkuntza ezagutzen ditugu? Zeintzuk?

- Horietatik zenbat entzun ditugu gure auzoan/ herrian edo ondokoetan?
- Gelan edota ikastolan zein hizkuntza ikasten ditugu? Eta zeintzuk entzuten ditugu?
- Zenbat hizkuntza egongo dira munduan? Bila dezagun!

2. Jarduera: Irakasleak 5 talde osatuko ditu eta talde bakoitzak kontinente bakoitzean dauden hizkuntzak bilatu beharko ditu interneten.

3. Jarduera: Komunean jarriko dituzte aurkitutako hizkuntza guztiak. Orduan irakasleak munduan 6000-7000 hizkuntza daudela aipatuko die eta mintzatuenak zeintzuk diren erakutsiko die<sup>2</sup>. Bertan guk erabiltzen ditugun hizkuntza guztiak agertzen diren edo ez eztabaidatu eta horren zergatiaz hausnartuko dute.

2. SAIOA: Hizkuntzak gure bizitzan

1. Jarduera: Aurreko egunekoa birgogoratuko dugu, ezagutzen ez ditugun hizkuntza mordoa dagoela aipatuz. Horren ostean bakoitzak bere hizkuntzen ibaia marraztuko du. Irudian bakoitzaren bizitzatik pasatu diren hizkuntzak ibaiadarrak izango dira eta bakoitzaren hizkuntzen ibaian bukatuko dute. Gehien erabili dituztenak ur gehiago garraiatuko dute.

2. Jarduera: Orokorrean, denen ibaietan, agertzen diren hizkuntzak aipatuko dituzte. Guzietan euskara agertuko da, aurreko egunean interneten agertzen zen bezalaxe. Baina interneten ez ziren 6000-7000 hizkuntzak agertzen, zergatik? Horrek hizkuntza guztiak garrantzi berbera ez daukatela esan nahi al du? Euskara agertuko ez balitz zer irudituko liezaieke? Hausnarketa denek batera egingo dute.

3. Jarduera: Hausnarketa egiterakoan bakoitzak bere iritzia ematen du, baina iritzia emateko bai idatzizko eta bai ahozko testu formal ezberdinak sor daitezke. Nola dauka izena testu mota horrek? Landu al dute testu mota hori lehenago?

3. SAIOA: Argudio testuaren kokapena eta hurbilpena. Errepasoa

---

<sup>2</sup> 1. Eranskina

1. Jarduera: Argudio testuaren inguruan bururatzen zaiena idatziko dute arbelean. Hurrengo galdera gida erabili daiteke ikasleek nondik hasi ez badakite.

- Ezagutzen duzue horrelakorik?
- Non irakurri dituzue? Eleberrietan? Egunkarietan? Eskolako aldizkarian?
- Zein uste duzue dela argudio-testuen helburu nagusia: azalpenak ematea, hartzaileak pentsatzen duena gure pentsamendura erakartzea, hau da, limurtzea eta konbentzitzea?
- Non uste duzue agertuko direla gehienbat argudio-testuak? Prentsan? Eskolako testuetan? Aldizkarietan?

2. Jarduera: Irakasleak 4 pertsonako taldeak osatuko ditu eta ikasleek ordenagailuak hartuko dituzte, argudioak ematen dituzten testuak topatzen saiatuko dira internet erabiliz. Besteak beste, egunkarietan edo aldizkarietan aurki ditzaketela adieraziko zaie. Eurak bakarrik informaziorik aurkituko ez balute euskal egunkari eta aldizkari digitalen izenak luzatuko zaizkie.

3. Jarduera: Aurkitu dituzten testuen inguruko informazioa komunean jarriko dute ikasleek. Zein testu topatu dituzten adieraziko dute eta berezitasunik antzeman duten galdetu ondoren ezaugarri horiek zerrendatuko dituzte.

4. Jarduera: Irakasleak Unitate Didaktikoaren ebaluazioa azalduko du, denek ulertu dutela bermatuz eta arazorik egonez gero ikasleekin konpontzen saiatuz. Horrela, beraiek ere prozesuaren parte sentituko dira eta.

### **7.7.2. Gauzatzea**

4. SAIOA: Argudio-testuen generoak ezagutzen

1. Jarduera: Aurreko egunekoaren birpasa egingo dute galderen laguntzaz, aurreko eguneko informazioa ezagutza bilakatu duten edo ez jakiteko.

2. Jarduera: Oraingoan eurek sortuko dituzte 4-5 pertsonako taldeak eta ondoren irakasleak 3 testu-zati<sup>3</sup> eta taula bat<sup>4</sup> luzatuko dizkie. Taldekideek testuak irakurri beharko dituzte eta ondoren taula bete. Bukatutakoan denen artean taula osatuko dute.

3. Jarduera: Iritzia noiz ematen dugun eta zertarako balio duen azalduko die irakasleak, adibideak jarritz. Eta horretarako argudio testu ezberdinak daudela aipatuko die, erabilpen eremuari mugatzen zaizkionak. Erabilpen eremu ezberdinak zeintzuk diren galdetuko du irakasleak eta ondoren berak betetze lanak bukatuko ditu<sup>5</sup>. Zein eremuri helduko diogun azaldu eta bertan zein argudio-testu genero egon daitezkeen azalduko die. Denen artean bakoitzaren ezaugarriak zeintzuk izan daitezkeen adostuko dute.

- Egoera askotan erabiltzen dugu argudio-testua gure eguneroko jardunean: ikuspuntu bat ematean, iritzi bat arbuiatzean, aukera bat justifikatzean, proposamen bati eustean, proiektu bat defendatzean, salaketa bati aurre egitean, etab.

- Guk, hedabideetako eremuari eskainiko diogu arreta berezia sekuentzia didaktiko honetan. Hala ere, lehenbizi argudio-testuak sailkatzen ikastea komeni zaie.

4. Jarduera: Irakasleak lehenago banatutako testu-zatiak proiektatuko ditu eta bakoitza zein generori dagokion erabaki beharko dute ahoz goran.

5. Jarduera: Lehenago sortutako taldeetan jarraituko dute eta irakasleak talde bakoitzari egunkari bat emango dio. Taldeek egunkarian argudio-testuak bilatu beharko dituzte, zein generotakoak diren azaldu eta taldekideen artean argudio-testuaren egitura zein den proposatu beharko dute.

---

<sup>3</sup> 2. Eranskina

<sup>4</sup> 2. Eranskina

<sup>5</sup> 3. Eranskina



## 5. SAIOA: Modalizazioa iritziaren oinarri

1. Jarduera: Aurreko egunean taldeetan adostutako egitura denen artean txukunduko dute. Irakasleak lagunduko die eta denen artean egitura aproposa idatziko dute arbelean. Argudio-testuaren egitura orokorra idatzi ondoren iritzi artikulua egitura adostuko dute irakaslearen laguntzarekin<sup>6</sup>.

2. Jarduera: Irakasleak testu bat<sup>7</sup> banatuko die bakoitzari eta banaka testu horren egitura jarraituz testua banatuko dute. Horretarako zein generotakoa den adierazi beharko dute lehenbizi.

3. Jarduera: Modalizazioaren lanketa egingo dute testu berbera erabiliz eta irakasleak banatutako taula<sup>8</sup> baten laguntzaz. Taula beteta daukatela talde guztiek komunean jarriko dute.

4. Jarduera: Modalizazioaren alderdi bat landu dute aurreko jardueran. Hori bukatu ondoren modalizazioaren inguruko azalpenak emango ditu irakasleak eta bere garrantziaz arituko zaie ikasleei. Argudio-testu batean modalizatzea oso garrantzitsua dela azalduko die eta estrategiak azalduko dizkie.

## 6. SAIOA: Modalizatzen!

1. Jarduera: Aurreko eguneko birgogoratuko dute. Ondoren modalizazioaren beste bi alderdiak lantzeko ariketak egingo dituzte. Irakasleak, horretarako, hutsuneak dituzten bi taula<sup>9</sup> luzatuko dizkie ikasleei. Ikasleek banaka beteko dute lehenbizi eta, ondoren, denon artean zuzenduko dute. Beste ariketa osagarri bat<sup>10</sup> egingo dute jarrera ulertu duten ziurtatzeko.

2. Jarduera: Testu bat<sup>11</sup> proiektatuko du irakasleak eta testu modalizatzaile guztiak bilatuko dituzte denen artean.

---

<sup>6</sup> 4. Eranskina

<sup>7</sup> 5. Eranskina

<sup>8</sup> 6. Eranskina

<sup>9</sup> 7. Eranskina

<sup>10</sup> 7. Eranskina

<sup>11</sup> 8. Eranskina

3. Jarduera: Modalizazioaren eskematxoa egingo dute alderdi nagusiekin<sup>12</sup>.

4. Jarduera: Bukatzeko, aurreko eguneko testuan eta gaur proiektatutako testuan dauden testu antolatzaileak aldatu beharko dituzte. Horretarako irakasleak testu antolatzaile ezberdinak agertzen diren fitxa bat<sup>13</sup> emango die, aurrerantzean ere erabilgarri suertatuko zaiena.

## 7. SAIOA:

1. Jarduera: Irakasleak DBHko 2. mailako ikasle batek sortutako iritzi-testu laburra<sup>14</sup> proiektatuko die. Beste herrialde batetik etorritako pertsonen inguruko iritzi testua, hain zuzen. Iritzi artikulua egiteko jarraitu behar duen egitura kontuan hartu duen eta modalizazio era egokian erabili duen baloratuko dute denek batera.

2. Jarduera: Gaiaren eztabaida egingo dute, horretarako irakasleak 4 talde sortuko ditu:

1. Euskal Herritik kanpo datozenen eta euren kulturen aurka daudenak.

2. Euskal Herritik kanpo datozenak lagundu behar direla pentsatzen dutenak baina hemen integratzeko euren hizkuntza eta ohiturak alde batera utzi behar dituztela pentsatzen dutenak.

3. Euskal Herritik kanpo datozenak hemen integratzeko laguntzak hemen behar direla pentsatzen dutenak baina euren kultura errespetatu behar dela pentsatzen dutenak gureak besteko eskubideak dituelako.

4. Euskal Herritik kanpo datozenak.

---

<sup>12</sup> 9. Eranskina

<sup>13</sup> 10. Eranskina

<sup>14</sup> 11. Eranskina

Taldeetan argudioak prestatuko dituzte eta borobilean eseriko dira eztabaida gidatua egiteko. Ondoren autoebaluazioa<sup>15</sup> egingo dute euren burua nola ikusi duten jakiteko.

#### 8. SAIOA: Iritzi artikulua lantzen

1. Jarduera: Irakasleak taldeak egingo ditu eta ikasleei munduan kulturantzatasuna kudeatzeko dauden ereduak azaldu ostean ordenagailuak banatuko dizkie.

Ordenagailuez baliatuz informazio hori sakondu beharko dute eta gaiaren inguruko tesia eta argudioak prestatuko dituzte.

2. Jarduera: Behin aurreko jarduera bukatuta talde guztiek euren gelakideei azalduko diete zeintzuk diren euren iritzi artikuluan idazteko pentsatutako tesia eta argudioak. Ondoren kontrako argudioak eta horiek indargabetzeko tesiaren aldeko argudioak erabakiko dituzten taldeetan.

3. Jarduera: Gelakideei azalduko diete zeintzuk izango diren erabakitako kontrako argudioak eta hauek indargabetzeko argudioak.

#### 9. SAIOA: Iritzi-gutuna lantzen

1. Jarduera: Denen artean iritzi-gutunaren hezurdura sortuko dute oraingoan. Gobernuko zuzendariari bidaltzeko iritzi gutunarena, hain zuzen. Bertan aurretik azaldutako kudeaketa eredu bat aukeratu beharko dute eta eredu hori zergatik erabiliko beharko litzatekeen argudiatu.

2. Jarduera: Denen artean ere eskematikoki kontrako argudioak jarriko dituzte irakaslearen gidaritzapean.

3. Jarduera: Bukatzeko, ondorioak aterako ditzuzte denen artean.

### 7.7.3 Erabiltzea

---

<sup>15</sup> Eranskinak

10. SAIOA: Iritzi artikulua planifikazioa

1. Jarduera: Irakasleak gelako ikasle guztiei gai berbera emango die: *Nik euskarari eta euskarak niri.*

2. Jarduera: Ikasitako guztia kontuan izanda bakoitzak bere iritzi artikulua prestatu beharko du.

11. SAIOA: Iritzi testua egikaritzea

1. Jarduera: Bakoitzak bere iritzi artikulua denen aurrean irakurriko du.

2. Jarduera: Bakoitzari feedbacka eman eta orokorrean galdetuko du ea ondo jarraitu diren eman beharreko pausoak.

3. Jarduera: Unitate Didaktikoa bukatzeko azkeneko ohartxoak esango ditu irakasleak eta gaia borobilduko dute, argi zer atera duten esanez eta errealitaterako (hau da, euren eguneroko bizitzarako zer ikasi duten eta zertarako balioko dien) zertan den baliagarria denen artean ondorioztatuz.

## 7.8. Ebaluazioa

Proposamenaren azkeneko atalera heldu gara jada. Atal honetan aurreko guztiaren balorazioa egingo dugu. Horrek esan nahi du, beraz, teorikoki metodologia zehatz bat erabiliz edukiak era zehatz batean eskaini behar zaizkiela ikasleei. Baina hasieratik esan dugun bezala, proposamen hau kezka batetik abiatuta egindako proposamena da. Horregatik proiektuak bukatuta eta aurkeztuta dauden unetik aurrera proposamen osoaren ebaluazioa egin beharko da.

Ebaluazio hori bi zatitan banatuko dugu. Alde batetik ikasleei dagokiona, hau da, helburu zehatzak bete diren eta, horrenbestez, lortu beharreko gaitasun minimoak lortu dituzten eduki eta metodologia hauek erabiliz; eta, bestetik, proposamenari dagokiona

eta aurrekoarekin lotura handia duena, hau da, ea proposamena egokia den maila honetarako curriculumak jasotzen duen maila lortu duten ikasleek.

Helburu zehatzak kontuan hartuz horiei erantzungo dieten ebaluazio adierazleak finkatuko ditugu.

Adierazle horietan jasotakoa bete baldin badute ikasleek, horrek esan nahi du curriculumak jasotzen dituen gaitasunak minimoki garatu dituztela. Puntu horretatik gora ebaluazioaren arabera izango da gaitasun garapena ere. Hala ere, ebaluazio metodo egoki eta eraginkorra aurkitzea ez da erraza, horregatik irakasle bakoitzak metodo ezberdina darabil normalean. Gehienetan, gainera, ikuspegi negatiboa duen ebaluazioa erabiltzeko ohitura dagoela ematen du ongi egin duenak gaudituz eta besteak, aldiz, ez. Nik, ostera, alderdi positibotik egindako ebaluazioa egitea ikusten dut egokien.

Baina proposamena garatzeko erabiltzeko metodologia bezain garrantzitsua da ebaluatzeko era erabakitzea. Gainera, biek lotura handia izango dute. Metodo horrekin aurrera eramandako proposamena baita ebaluatu behar dena.

Horretaz gain, ebaluazio sistema zehatz bat erabiltzea komeni dela iruditzen zait. Nik proposatzen dudana, ebaluazio jarraitua egitea da, bereziki askotan gertatzen den bezala, azkeneko lana bakarrik ebaluatzea ekiditeko. Kasu honetan, unitate osoan zehar jasotako jakintza ebaluatuko da eta ez azkeneko lana soilik. Horretarako, irakasleak hirugarren saioan azalduko dien zertan datzan ebaluazio jarraitua.

Horretaz gain, era honetan ebaluatuz, bai ikaslea bera eta baita irakaslea ere bakoitzaren ikas-irakaspen prozesuan izandako garapen osoaren jabe izango da. Hasiera hasieratik hasten den prozesu bat dela baldin badiogu, guk ere hasiera hasieratik eman beharko diogu daukan garrantzia eta horren arabera bukaera arteko jarraipen osoa egin. Sekuentziazioak errazenetik zailenera bidea egingo duenez gero, edukiak zailtzen doazen heinean testuetan nahastuta agertuko dira, hau da, ikasten doazen elementu guztiak aurkitu, eraldatu edota ezabatu beharko dituzte testuetan. Modu horretan ikusiko dute ikasleek ere egindako aurrerapena eta zer ulertu duten eta zer ez duten guztiz ulertu.

Gainera, eurek landutako gai edota testu generoa landu ondoren ere euren buruaren balorazioa egingo dute eta, baita, talde lanean aritu direneko ebaluazioa ere; alde batetik taldean bakoitzak bere buru ebaluatuko du eta, bestetik, taldeko ebaluazio egingo dute irakasleak luzatutako gida baten laguntzaz. Era horretan kritikotasuna bilatuko da, betiere alderdi konstruktibotik.

Ikasleek, noski, irakasleek eskainitako bitarteko eta tresna ezberdinak izango dituzte ebaluazioa egiterako orduan. Horrela euren burua eta bakoitzaren prozesua ebaluatzea erraztuko zaie. Era horretan euren indarguneak eta ahuleziak zeintzuk diren ikusiko dute, eta baita, garapenean aurrerapausorik eman al duten edo ez.

Prozesua izan behar da gure oinarri finkoena eta ez azkeneko lanak. Dena den, azkeneko lanak ebaluazioan protagonismo garrantzitsua izango du. Lan horrekin erakutsiko baitute ikasleek unitate honetan garatu beharreko gaitasunak garatu dituzten edo ez. Baina horretarako garrantzizkoena helmuga horretara heltzeko egin duten ibilbide osoaren jarraipena litzateke.

Edonola ere, ikasleek euren eguneroko lana portfolio batean sartuko dute, berau izango da *Hizkuntza guztien edertasuna*. Azkeneko egunean irakasleari eman beharko diote honek eguneroko lana ebalua dezan.

Bestalde, ikasleek garatu duten gaitasun-maila ikusita, irakasleek proposamenaren ebaluazioa egin beharko dute. Hala ere, proposamena hasten denetik egin beharreko lana da hori, ikasleek ez badute momenturen batean espero bezala erantzun, irakasleak bere buruari ZERGATIK? Galdetu beharko lioke eta erantzuna bilatzen saiatu. Horretaz gain, alternatibaren bat eraiki beharko du hutsune hori betetzeko eta ikasleak arlo horretan ikasi behar duena ikas dezan. Horrek esan nahi du prozesu osoan zehar balorazio zehatzak egiten joango direla irakasleak eta prozesu bukaeran ikasleek garatu dituzten trebetasunak eta gaitasun maila ikusita balorazio orokorra egingo dutela. Ebaluazio hau oso garrantzitsua da, gerta daitekeelako egindako proposamena balizkoa ez izatea eta proposamenaren helburuak ez betetzea eta moldaketa batzuen beharra izatea.

Hala ere, ezin dugu ahaztu ikasle-talde bakoitza ezberdina dela eta beharrian ezberdinak izango dituztela. Horregatik ere proiektu bera era ezberdinean planteatu beharko da behin baino gehiagotan helburuak bete daitezzen, betiere, ikasle taldearen beharrianei egokituz.

Ikasleen azken lanaren harira irakasleak ez ezik ikasleek ere euren ikaskideak ebaluatuko dituzte hurrengo taula betez:

IZENA:	1	2	3	4	5
Iritzi artikulua erabili du					
Modalizazioa testuaren xederako mesedetan erabili du					
Era koherentean idatzi du					
Garbi ahoskatu du					
Kulturaniztasuna kudeatzeko landutako ereduak kontuan hartu ditu					
Euskararekiko jarrera aldatu du					

1: guztiz kontra; 2: kontra; 3: hala nola; 4: nahiko ados; 5: guztiz ados

Irakasleak lauki guztiak jasoko ditu eta bere ebaluazioaren arabera kontuan hartuko du ikaskideek diotena.

Hauek izango dira irakasleak unitate osoan zehar erabiliko dituen adierazleak:

- Ea argudio-testu mota garrantzitsuenak bereizten dituen, eredu batzuk emanda.
- Ea emandako irizpideei jarraituz, argudio testuak alderatu eta ondorioak ateratzen dituen.
- Ea bilatzaileak behar bezala erabiltzen dituen informazioa aurkitzeko.
- Ea informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen duen erabilitako iturrietan.

- Ea transmititu nahi duen edukirako egokiak diren adierazpen-baliabideak erabiltzen dituen.
- Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan.
- Ea nahiko ongi aplikatzen dituen elkarrekintzarako arauak: arretaz entzutea, txanda itxarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea eta gizalegezko arau batzuk betetzea.
- Ea zereginak planifikatzerakoan eta burutzerakoan behar besteko autonomia duen.
- Ea lanak gauzatzerakoan zuzentasuna eta alde estetikoa zaintzen dituen.



## 8. BIBLIOGRAFIA

- Arexolaleiba, J. (2004). European eta munduan aniztasuna: etorkizuna=etorkizuna?, BAT aldizkaria, 52zbk, Euskal Herria.
- Argibay, M. Hegoa. 2003  
[http://www.bantaba.ehu.es/formarse/ficheros/view/Exposici%C3%B3n\\_2\\_Sesi%C3%B3n\\_1.pdf?revision\\_id=34450&package\\_id=34415](http://www.bantaba.ehu.es/formarse/ficheros/view/Exposici%C3%B3n_2_Sesi%C3%B3n_1.pdf?revision_id=34450&package_id=34415)
- Azurmendi, M. J. (2003). Lengua e Identidad: A propósito de una publicación reciente. Revista Internacional de Estudios Vascos (RIEV), 48, 1, 409-429.
- Barreña, A. & Juaristi, P. Hizkuntza gutxituan nazioarte mailan. HIZNET Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Chomsky, N. (1959/1977). Crítica de Verbal Behavior de B.F. Skinner. In ¿Chomsky o Skinner? *La génesis del lenguaje*. Barcelona: Fontanella.
- Etxeberria, F. (2004). *Sociedades multiculturales*. Bilbo: Mensajero.
- Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2007). 175/2007 Dekretua, azaroaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum a sortu eta ezartzekoa, from [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r432459/es/contenidos/informacion/dif10\\_curr\\_iculum\\_berria/es\\_5495/adjuntos/v\\_eranskina\\_01\\_hizkuntzak.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r432459/es/contenidos/informacion/dif10_curr_iculum_berria/es_5495/adjuntos/v_eranskina_01_hizkuntzak.pdf) iturrian eskuragarriak.
- Eusko Jaurlaritz (2007). Oinarrizko Gaitasunak EAeko Hezkuntza Sistemari. III. eranskina.
- Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. (2010). Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu kurrikularrak Euskal Autonomia Erkidegoan. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- García Canclini, N. (1989). *Culturas híbridas*. Estrategias para entrar y salir de la modernidad. Grijalbo: México.
- Giménez, C & Malgesini, G. (1997). *Guía de conceptos sobre migraciones racismo e interculturalidad*. Ed. La cueva del oso. Madrid.
- Grimes, F. B. (Ed.) (1996): *Ethnologue. Languages of the World*. Summer Institute of Linguistics. Dallas, (13. edizioa).
- Idiazabal I. (Ed.) (1990), *Hizkuntzaren Psikopedagogia*. Testu motak. Funtzionamendua eta didaktika. Bilbao: Labayru.
- Kimlicka, W. (1996). *Ciudadanía multicultural*. Paidós, Barcelona.

Olivé, L. (2004). *Interculturalismo y justicia social*. UNAM, México.

Pichardo, J. I. (Ed.) (2003) “Reflexiones entorno a la cultura; una apuesta por el Interculturalismo” Madrid.

Rojas, I. (2005). *Pluralismo cultural, multiculturalismo e interculturalidad*. Patrimonio cultural y turismo, cuadernos 13, 52, 183-186.

Touraine, A. (1995). *¿Qué es una sociedad multicultural? Falsos y verdaderos problemas*. Claves de Razón Práctica, 56, 14-25.

Velasco, J.C. (2000). *El multiculturalismo, ¿una nueva ideología?* In Alcina J. & Calés, M. (Ed.) (2000): *Hacia una ideología para el siglo XXI*. Madrid. 146-163.

Zapata, M. (2007). *Euskara, immigrazioa eta hizkuntza-eskubideak*. In Alberdi, X. & Uranga, B. (Ed.) (2007): *Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak*. Lan jardunaldiaren inguruko gogetak. Bilbo. 49-54.

## **Webguneak**

<http://nagusia.berritzeguneak.net/eu>

[http://www.berria.eus/albisteak/110364/bartzelonak\\_elkartasuna\\_adierazi\\_dio\\_eibarri\\_garitanorekin\\_gertatutakoagatik.htm](http://www.berria.eus/albisteak/110364/bartzelonak_elkartasuna_adierazi_dio_eibarri_garitanorekin_gertatutakoagatik.htm)

[http://www.berria.eus/egilea/iker\\_agirre\\_aginalde](http://www.berria.eus/egilea/iker_agirre_aginalde)

[http://www.berria.eus/paperekoa/1728/006/002/2011-09-10/perdone\\_usted.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1728/006/002/2011-09-10/perdone_usted.htm)

<http://euskaljakintza.com/kontsultategia/antolatzaileak-2/>


<http://www.gazteberri.eus/?p=4621>

<http://www.revistateina.es/teina/web/Teina3/dossier%20Moncusi%20ver%20imprim.htm>

[http://zuzeu6.rssing.com/chan-47921288/all\\_p41.html](http://zuzeu6.rssing.com/chan-47921288/all_p41.html)

## 9. ERANSKINAK

### 1. Eranskina



■ bñnera 885	■ ingelesa 322	□ gaztelania 266	□ bengaliera 189	■ india 180	■ portugesa 170
■ errusiera 160	□ arabiera 150	■ japoniera 122	■ alemana 98	■ javera 75	■ koreera 75
■ telugera 73	■ frantsesa 72	■ vietnamera 67	■ maratiera 65	■ tamilera 62	□ turkiera 59
□ urdua 54	■ gujeratiera 44	□ poloniera 44	■ ukrainera 41	□ italiera 40	□ kannadiera 34
■ malayalamera 34	■ indonesiera 30	■ oriyera 30	■ punjabiera 30	■ sundera 27	■ errumaniera 26
■ persiera 26	□ bhojpurera	■ maithiliera 24	■ birmaniera 22	■ hausa 22	■ nederlanderera 21
■ serbokroaziera 21	■ amharera 20	■ awadhiera 20	■ thiera 20	■ yoruba 20	□ sindhiera 19
■ uzbekera 18	■ igboa 17	■ swahilia 17	■ haryanviera 16	■ nepaliera 16	■ saraikiera 15
■ sebuera 15	■ tagaloa 15	■ zhuangera 15	■ asamera 14	■ azerbaijanera 14	■ hungariera 14
■ oromoera 14	■ zingaliera 13	□ greziera 12	■ kurdera 12	□ marwariera 12	□ txekiera 12
■ chhattisgarera	■ magahiera 11	■ paxtoera 11	□ berbera	■ bielorrusiera 10	■ maduera 10
■ malayera	■ malgabxera 10	□ 5930 HIZKUNTZA			

## 2. Eranskina

1

Hemendik kanpo, herri euskaldunaren fama du Arrasatek. Datuek, ordea, hobetzeko asko dugula erakusten dute. Horren aurrean, euskaraz bizitzeko hautua egin dugu gazte arrasatearrok. Gazte asko eleanitzak gara. Guztiok dakigu euskaraz eta gaztelaniaz. Gainera, gutako asko atzerriko beste hizkuntza batzuetan ere moldatzen gara. Hizkuntza aukeratzeko gaitasuna eta eskubidea daukagulako, guk euskaraz bizi nahi dugu; pertsona eleanitzez osatutako Arrasate euskalduna eraikitzea posible dela iruditzen baitzaigu.

Euskaraz bizitzeko, ezinbestean, oztopo administratibo eta legalak gainditu behar direla argi dago; gure hizkuntza gutxitua dela kontuan izanik, are gehiago. Arrasateko gazteok administrazioari beharrezkoak diren arau eta politikak exijitu behar zaizkiola uste dugu, baita horiek kudeatzen dituzten agintariei ere.

Hala ere, gazteok geure konpromisoak hartu behar ditugula ere argi dago eta, beraz, esan gabe doa guk ingurukoekin euskaraz egingo dugula; lan esparruan, lagunartean, familian... Euskara izango dugu ardatz, eta hura erabiliz egingo diegu aurre inguruko oztopoei; guztiei hizkuntza ofiziala dugun euskara exijituz (administrazioa, eskolak...). Horrela, herria euskararen arnasmune bilakatu daitekeela pentsatzen dugu, poliki-poliki herri euskaldunago bilakatuz.

2016-07-07 / Iker Agirre Aginalde  
Berria

2

Internet bidez hizkuntza desberdinak ikasteko aukera ematen duen Duolingo munduko herrialde desberdinetan gehien ikasten diren hizkuntzak zeintzuk diren aztertu du. Horretarako, hiru hilabetez, 194 herrialde desberdinetan dituen 120 milioi erabiltzaileen eguneroko jarduera aztertu du.

Imajinatu ahal izango zenuten moduan, ingelesa da mundu osoan zehar gehien ikasten den hizkuntza. Estatu guztiak aintzat hartzen badira, bi herenetan ingelesa gehien ikasten diren bi hizkuntzen artean aurkitzen da. Gezurra badirudi ere, Estatu Batuetan ingelesa da gehien ikasten den bigarren hizkuntza (gaztelaniaren atzetik hain zuzen ere). Ingeles ikasle gehien dituzten herrialdeak, batez ere, Latinoamerika, Ekialde Hurbila eta Asiako Hego-ekialdean aurkitzen dira.

Ingelesaren atzetik, frantsesa eta gaztelania aurkituko lirateke. Horrela, frantsesa gehien ikasten diren bi hizkuntzetako bat da herrialdeen % 58an eta gaztelania, aldiz, % 46an. Hala ere, gaztelaniak hitzun edo ikasle gehiago ditu: ikasleen % 17 gaztelania ikasten ari da eta % 11 frantsesa. Frantsesaren kasuan, ikasle gehienak Afrikan biltzen dira. Gaztelaniak, berriz, arrakasta handiagoa du ingelesa ama-hizkuntza duten herrialdeetan.

Gazteberri / 2016-06-02 / 583 hitz

Atzo, Almerian (Espainia), kazetari batzuk kexatu egin ziren Eibarreko entrenatzaileak euskaraz hitz egin zuelako, eta eragotzi egin zuten agerraldia; Eibarreko entrenatzaileak utzi egin zuen prentsa aretoa. Kazetari horiek kexatzen ziren bitartean, Almeriako prentsa arduradunak ixiltzeko eskatu zien, eta errespetua adierazteko, eta gaineatu zuen Bartzelona Almeriara joan izan denean ohikoa izan dela lehenengo katalanez erantzutea eta gero gazteleraz. Gaur, bada, Bartzelona futbol klubak gutun bat bidali dio Eibarri elkartasuna adieraziz.

Carles Vilarrubi hirugarren presidenteordeak sinatu du gutuna. Berak daramatza arlo instituzionala eta nazioartekoa. Vilarrubik eskatu du gutun horretan kexatu ziren kazetarien gisako jarrerak ez errepikatzeko, eta Eibarri animoak eman dizkio Lehen Mailatik ez jaisteko borrokan. Pep Guardiola Bartzelonako entrenatzaile ohi eta Bayern Municheko entrenatzaileak ere Garitanorekin gertatutakoaren inguruan adierazi du "lehenago edo beranduago" lortuko dela katalana beste edozein hizkuntza bezala hartua izatea.

2015-04-27 / Ainhoa Oiartzaba- Enekoitz Esnaola

Berria

<b>EZAUGARRIAK</b>	1.testua	2.testua	3.testua
Hartzaileari zuzentzen zaio			
Igorlea 1.pertsonan ari da			
Igorlea 3.pertsonan ari da			
Testuaren tonua subjektiboa da			
Xedea irakurlea konbentzitzea da			
Xedea gertakari baten berri ematea da			
Argudio-testua da			
Narrazio-testua da			
Azalpen-testua da			
Objektiboki kontatuta dago			

### 3. Eranskina

ERABILPEN EREMUA	TESTU-GENEROA
Gizarteko komunikabideak	Iritzi-artikulua, editoriala, debatea, eztabaida, mahai-ingurua, publizitatea, zuzendariari gutuna...
Literatura	Epistola, saioa, eztabaida,...
Ikasketak	Txostena, ponentzia, kritika, Tesia, iruzkina,....
Instituzio harremanetan	Txostena, instantziak, adierazpena, iragarkia, slogana, eztabaidak, eskaintza, eskabidea, errekurtsioak,...
Pertsona arteko harremanak	Eztabaida, kritika, iruzkina,...

#### 4. Eranskina

##### ARGUDIO TESTUA

√ Zer da argudio testua? Gai baten inguruan egileak ematen duen iritzia eta arrazoi sorta.

√ Non ager daitezke? Komunikabideetan nonahi: irradian (kronika), egunkarietan (iritzi artikulua, irakurlearen txokoa), aldizkarietan, interneteko foroetan...

√ Egitura:

- Hasierako tesia: gaiaren aurkezpena izan ohi da. Tesia edo hipotesia garatzen da.
- Argudioen gorputzaren osaketa: tesia demostratzen duten arrazoiak, argudioak ematen dira.
- Ondorioa (edo tesi berria): gorputzean emandako arrazoiaren ondorioak laburbiltzen dira. Horiek bi motatakoak izan daitezke: frogak, guk esandakoa baieztatzeko erabiltzen ditugunean, edo gezurtatzea, argudio bati kontra egiteko erabili izan badira.

√ Iritzi artikuluaaren egitura:

- Sarrera
- Tesia (bukaeran ere jar daiteke): egileak gaiaren inguruan duen jarrera edo iritzia.
- Aldeko argudioak: tesia defendatzeko emandako arrazoiak.
- Kontrako argudioak: tesiaren aurkako iritziak.
- Kontrako argudioak indargabetzeko argudioak.
- Ondorioa: tesiaren berrespena da.

## 5. Eranskina

Egunotakoa bezalako itsas denborale batean izan zen, iaz. Hor lehertu zen itsasokoa ez ezik beste olatu bat. Kritika bat EiTBrri, ETB2ri, zehazki. Enbataren notizia jarraitzeko zuzeneko konexioetan lortu baitzuen bere funtzio publikoaren gailurra. Kostaldeko herrietako euskaldunak, beretzat gazteleraz hizketan jartzea.

Olatuak baretu zirenean kritika hark utzi zuen bere sedimentua. Handik gutxira azaldu zuen EiTbk euskaldunen hitzak euskaraz emitituko zituela erdal katean ere, gauza bera elebitan esanarazi gabe. Baina hemen da berriz olatu zaharren aroa, eta urak bere bidera bezala, entzun ditugu berriz zarauztarrak edo bermeotarrak gaztelera jatorrean. Hemezortzi elkarrizketatuetatik bi euskaraz atzoko Teleberrian.

Komunikabide elebidunek euskara nola, norekin eta zertarako erabiltzen duten, bai Onda Vascan edo Garan, gai horrek badu mamia, baina denen artean, inork izatekotan, medio publikoak luke ardurarik handiena. Hor dugu adibidez “El Conquistador” saio sonatua, beste gaitz askoren artean hau ere baduena. Partaideak asko dira euskal hiztunak, ikus-entzuleak ere asko eta asko euskaldunak. Eta nola lortzen duen ETB2k euskaldunak euskaldunak erdaraz entzuten jartzea.

Ez da hizkuntza kontua bakarrik, mundu erreferentzial kontua ere bada. ETB2ko lehiaketan aurrera egiteko, adibidez, jakin behar duzu “cómo se dice en Murcia...” edo bi aukerotan zein den zuzena: “*Belen Esteban o Kiko Rivera*”. Eta ez da mundu erreferentziala bakarrik, ahoskera ere bada, betiko aurkezleak oraindik Zaraitzu esan ezinda sumatzea. Eta ahoskera hurbiltasuna da, eta errespetua.

Ez da gainera ahoskera kontua bakarrik, ikuspuntua ere bada, non duzun ardatza. Ze, Reyes Pradok, adibidez, ahoskera dotore askoa du euskaraz, baina beti paradoxa berean kateatzen dute: Andaluziatik euskaldunoi begira. Bart ikusi berri dugu ihauterietan, Zalgizeko dantzari sei sevillanak irakasten eta Mixel Etxekoparri “*zuen euskalki berezi hori*” esaten. Alegia, ikusleok aurkezlearekin identifikatuta eta euskaldun jendea aborigen, exotiko, aztergai. Sevilla etxekotu eta Zalgize arrotz egin.

“*8 apellidos vascos*”aren albo-kalteak dira oraindik. “*Todos los apellidos vascos*” delako saio hori bezala. Hor abizenak ez dira arazoa, abizenak norenak diren da kontua: Boris Izagirre, Willy Toledo... Horiek dira euskal herritarrentzat intereseko eta erreferentziako pertsonak? Baietz esango didate, horiek direla Euskadi errealeko erreferentziak. Eta izan, seguru asko izango dira, besterik da EiTbk hori elikatu behar duen.

Mundua ez dela Euskal Herrian bukatzen esango didate, ireki egin behar dela mundura. Eta ados, zabal gaitezen, Kanadara, Madagaskarra, Indiarra... mundura! Ekar ditzagun elkarrizketatuak mundutik, ez baitago gauza itxiagorik mundu Espainiari deitzea baino. Eta EiTbk Euskal Herriko erdaldunei mundua euskaraz edo euskararantz behintzat erakusten ari ordez gehiegitan ari zaigu euskaldunoi, mundua delakoan, Espainia erakusten.

Maialen Lujanbio  
2016-02-10  
Euskadi Irratiko Faktorian esandakoa



## 6. Eranskina

Testuaren igorlea	
Igorlearen presentzia dago testuan	
Zein pertsonatan dago idatzita	
Beti aditz-pertsona bera darabil (noiz darabail bat eta noiz bestea)	
Pertsona izenordainak	
Adibideak	

Testuaren gaia	
Igorleak defendatzen duen ikuspuntua	
Adibideak (esaldiak idatzi)	

Igorlearen salaketa edo kritika	
---------------------------------	--

**7. Eranskina**

**JARRERA:**

ZIURTASUNA	PROBABILITATEA
Iritzi-aditzondoak:..... ..... .....	Iritzi-aditzondoak:..... ..... .....
Aditz modalak:..... ..... .....	Aditz modalak:..... ..... .....
Aditz moduak:..... ..... .....	Aditz moduak:..... ..... .....
Nahia edo komenientzia adierazteko:.....da gehien erabiltzen den forma	
Agindua emateko:  <div style="text-align: center;">                     Agintera:.....                      Subjuntiboa:.....                      Baldintza:.....                      Aditz modalak:.....                 </div>	

**BALORAZIOA:**

Nire ustez, jakina, ezin bestela izan, ei, noski, badirudi, seguruenez, ideia hori defendatzea zentzugabekoa da, deritzot

IRITZIA	DESADOSTASUNA	ZALANTZA

ESALDIAK	ZIURTASUNA	PROBABILITATEA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaur euria egingo duelakoan nago</li>   <li>• Dantza hori ezin dezake edozeinek egin</li>   <li>• Ikastetxe honetan ikasle gehienek gaintitzen dute</li>   <li>• Litekeena da aurten mahai gehiago erostea</li>   <li>• Euriteak uholdeak eragin ditzake</li>   <li>• Litekeena da datorren kurtsoan hizkuntzak ikasten hastera</li>   <li>• Leihoak berriro ere apur litezke haizeagatik</li>   <li>• Euskararen normalizazioan bakoitzaren aletxoak jartzea ezinbestekoa da</li> </ul>		

## 8. Eranskina

Baina euskaraz hitzegingo dizut. Aste bete barru Donostiako Zinemaldiaren baitan *Bertsolari* filma aurkeztea tokatuko zaigu. Zenbait bertsolarik parte hartu dugu bertan, eta, datorkiguna aurreikusiz, geure arteko gogoetaldi bati ekin diogu. Prentsaurreko, aurrez aurreko elkarrizketa, irrati eta telebista programa edo gainerakoetan ze hizkuntza erabiliko dugu edo ditugu?

Euskal Herrian bertan, eta zer esanik ez inguratzen gaituzten Estatuetakoko biztanleen artean, bada uste bat, guri ergela iruditu arren, oso zabaldua dagoena: guztiok dakigu geurez gaztelera edo frantsesa, eta gainera batzuk, kasualitate moduko batez edo, euskaraz dakite, baserrian jaio zirelako, AEKn euskaraz ikasi zutelako edo orain eskolatan euskaraz ere irakasten dutelako. Guztion hizkuntza gaztelera edo frantsesa dira, eta besteak jakiteak «aberastu» egiten gaituela onartzeraino ere irits daiteke zenbait, onenera.

Makurrena da geure burua ere uste ergel horren menpe kokatzen dugula askotan. Mila izan daitezke arrazoiak men egiteko: inertzia bera eta egindako hautuan ez gehiegi pentsatzea; gure auzokide diren erdal komunitatekoengana gure mezua eta jarduera adeitsu eraman nahia; ama-hizkuntzaz gain gaztelera txukun, frantsesez lau hitz eta ingelesez bi dakizkigula frogatzeak unibertsalago egiten gaituela geuk sinistea; kazetari gizarajoa edo gajoa ahoa bete hartz ez uztea, azken batean errua berea ez dela jakitun... Askotarikoak, eta sakonera handi-txikikoak izan daitezke arrazoiak. Baina inoiz jarri al gara serio pentsatzen arrazoi horiek aitzakia baino ez direla? Ez gara, nonbait, ausartzen.

Jendaurreko adierazpenak euskaraz eta euskaraz bakarrik egitea zenbaitek egoskorkeriatzat hartuko du. Joera etnizista dela ere esango dute. Etnizistatzat, ordea, alderantzizkoa hartzen dut nik. Javier Clemente futbol-entrenatzaileak duela urte mordoska prentsaurreko bat eman zuen Bartzelonan kazetari euskaldun batekin tranpa bat adostu ondoren. Kazetariak euskaraz egingo zion galdera, eta Clementek euskaraz baleki bezala erantzungo zion hitz-hots ez ulergarriak elkarri txirikordatuz eta gainerako kazetarien txundidura sortuz. Esan eta egin egin zuten. «Bai. Bai. Bligun baldefa gol bat eta glutaren guzta ondo, bai» irudikatzen dut barakaldoarra munduaren aurrean, izan nahi zukeena baina ez zena, balitz modura saltzen. Eta hori, ez zarenari zarenari baino garrantzia handiagoa ematea da. Gu bagara. Euskaradun, alegia. Errealitatearen beste muturretik sarri akats bera egiten dugu ordea: ez garena jartzen dugu garenaren gainetik, aitzakiak aitzaki.









Nola jokatu asmatzen ez da erraza, baina erabakiren batzuk hartzen hain zaila ere ez. Itzulpen-moduak dauden areto eta lekuetan ez litzateke arazo euskaraz soilik aritzea. Azken batean sendoen sentitzen garen hizkuntzan egingo genioke kazetarien galderi eta jendeari aurre. Prentsaurrekoa amaitu eta behera jaistean hasten dira problemak. Litekeena da oso —hainbesteko paradoxatan bizi gara gure herrian— kazetari bat hurbildu eta euskaraz eskatzea gaztelera hitzen batzuk. ETB2rako ari da akaso, edo Radio Euskadirako. Egoera horietan hasi behar genuke gotortzen. Euren ezintasunaz jabetuta, konforma daitezela denentzat eta euskaraz esan ditugun zatiak hartzearekin eta itzulita eman ditzatela. Edo elkarrizketa propio bat kendu arren, guk euskaraz solik egin eta bikoizketa egin diezaiotela irratirako edo azpitoluak jarri telebistarako bada. Nik, bederen, gustura entzuten dut Pep Guardiola katalanez, azpian gaztelera itzulpena duela. Baina programa osoa bada erdaraz, eta programa itxurazkoa bada —David Barberok egiten duena demagun—, eta guk gure ideien eta jardunen berri eman nahi badugu, nola jokatu behar genuke?

Ez da samur-samurra afera, eta ez ditut oraindik korapilo gune guztiak aipatu. Idatzizko medioa bada elkarrizketa eske datorrena, eta medio hori bi hizkuntzak erabiliz kaleratzen bada, euskaraz argitaratzeko bada euskaraz egingo digute elkarrizketa. Baina gaztelera edo frantsesez argitaratzeko bada, euren hizkuntzan aritu edo ez zalantzan geratuko gara beti ere. Gainera, gure kontraesanen muinenera joz, kontu batzuk beti gaztelera —dirudienez garrantzitsuenak— eta beste batzuk beti euskaraz —gurenak— argitaratzeko joera dute. Zergatik? Gustura irakurriko nuke medio horietako batean, Brad Pitt Zinemaldira iritsi ondoreneko kronika euskaraz eta bertsolari bati egindako elkarrizketa gaztelaniaz eta hitzen barrenean (*Traducido en Redacción*) ohartxoa.

Bakoitzak nahi duena egitearen aldekoa naiz. Baina funtsezko gai batzuetan iparra non legokeen sumatzen hasteko garaia dugu.

2011-09-10 / Andoni Egaña  
*Perdone usted*  
Berria

9. Eranskina



10. Eranskina

TESTU ANTOLATZAILEAK										
Hasierakoak	Iritziak emateko	Idea bat aurkezteko	Indartzea	Idea berriak txertatzeko	Adibideak jartzeko	Arrazoitzeko	Ordena	Bukatzeko Eta ondorioak	Kontraktotasuna	Ziurtasuna
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hasteko</li> <li>• Lehenik eta behin</li> <li>• Ezer baino lehen</li> <li>• Lehen-lehenik</li> <li>• Sarrera gisa</li> <li>• Bezen behin</li> <li>• Honen bidez</li> <li>• Hasiera emateko</li> <li>• Ezer baino lehen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Askoren iritziz</li> <li>• (r)en arabera</li> <li>• Dirudienez</li> <li>• Badirudi</li> <li>• Dakigunez</li> <li>• (r)en ustez</li> <li>• (r)en esanetan</li> <li>• Diotenez</li> <li>• Antzadenez</li> <li>• ...-(e)la dirudi</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oro har</li> <li>• Horren haritik</li> <li>• Gero</li> <li>• Honen ostean</li> <li>• -ri dagokionez</li> <li>• Era berean</li> <li>• Komenida esatea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gainera</li> <li>• Are gehiago</li> <li>• Esan bezala</li> <li>• Aipatu bezala</li> <li>• Beste era batera esanda</li> <li>• Dakizue nez</li> <li>• Funtsean</li> <li>• Hain zuzen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez hori bakarrik</li> <li>• Bestalde</li> <li>• Baita... ere</li> <li>• Izan ere</li> <li>• Bestetik</li> <li>• Ere bai</li> <li>• Ez hori bakarrik</li> <li>• Halaber</li> <li>• Modu berean</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adibidez</li> <li>• Besteak beste</li> <li>• Esaterako</li> <li>• Hala nola</li> <li>• Demagun</li> <li>• Hau da</li> <li>• Hots</li> <li>• Eman dezagun</li> <li>• Aipa dezagun</li> <li>• Besteen artean</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bait-</li> <li>• (e)lako</li> <li>• (e)la eta</li> <li>• (e)la bide</li> <li>• Horregatik</li> <li>• Hori dela eta</li> <li>• Beraz</li> <li>• Hortaz</li> <li>• -t(z)eagatik</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehenik</li> <li>• Bigarrenik</li> <li>• Alde batetik</li> <li>• Bestetik</li> <li>• Gauzak horrela</li> <li>• Ildo beretik</li> <li>• Honekin batera</li> <li>• Berriz ere</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laburki</li> <li>• Ondorioz</li> <li>• Esanak esan</li> <li>• Azkenik</li> <li>• Bukatzeko</li> <li>• Amaitzeko</li> <li>• Honenbestez</li> <li>• Laburbilduz</li> <li>• Hitz gutxitan</li> <li>• Besterik gabe</li> <li>• Honen ondorioz</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Baina</li> <li>• Dena den</li> <li>• Dena dela</li> <li>• Edonola ere</li> <li>• Edozein modutan ere</li> <li>• Esanak esan</li> <li>• ..., ordea,</li> <li>• ..., berriz,</li> <li>• ..., aldiz,</li> <li>• Nolanahi ere</li> <li>• Hala ere</li> <li>• Edozein modulan ere</li> <li>• Hori(ek) gorabehera</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez dago zalantzarik</li> <li>• Seguruenik</li> <li>• Ziur aski</li> <li>• Zalantzarik/dudarik gabe</li> <li>• Argi dago</li> <li>• ..., noski jakina</li> <li>• Egia da</li> <li>• Jakina denez</li> <li>• Denek dakigu</li> </ul>

## 11. Eranskina

### **Atzerritarrak bai ala ez?**

Nire ustez atzerritar asko etorri dira, eta hauek, Espainia osoan sakabanatu dira erkidego guztietan. Toki guztietatik etorri dira: Marokotik, Errumaniatik... Baina hori ez da arazoa. Arazoa da, Espaniako gobernuak atzerritar batzuei seme-alaba bat edukitzeagatik dirua ematen diela eta eskolak atzerritarrez beteta daude. Hori dela eta herrialdekoak ezin dira sartu eskoletara beteta daudelako.

Nire ustez, hau aldatu behar da, atzerritarrei kasu gehiago egiten dietelako guri baino. Dirua ematen diete seme-alabak izateagatik, eta gainera etxeak eta bizilekuak bilatzen dizkiete.

Baina beste aldetik, ulertzen ditut, atzerriko toki batzuetan egoera oso txarto dagoelako eta okerrago bizi dira

Hau guztia dela eta, esan dezaket, atzerritarren kontra nagoela, guk baino preferentzia handiago daukatelako gobernuaren aurrean.

DBH 2. mailako ikaslea

**12. Eranskina**

<b>AUTOEBALUAZIOA</b>			
	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>EZ DAKIT</b>
Iritzi testuak idazterakoan egitura egokia darabilt			
Euskararen egoeraren inguruan eztabaidatu dezaket argumentuak emanez			
Euskal Herrian zein kudeaketa eredu ezarri beharko litzatekeen argudia nezake			
Antolatzaileak era egokian erabiltzen ditut			
Erabilpen eremuaren arabera argudiozko testu-generoak sailkatzeko gai naiz			
Kontrako argudioak deuseztatzeko zentzuzko argudio indargarriak emateko gai naiz			
Euskararen normalizazioaren bidean gobernuen jarrera eztabaida nezake argudioez baliatuz			
Euskararen normalizazioaren bidean nik inplikazio handiagoa izan dezaket			